

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# GIZARTE ERANTZUKIZUNEN ZUZENDARITZAREN MEMORIA

2015/2016  
Ikasturteko jarduerak

**Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte  
Erantzukizunaren Arloko Errektoreordetza**  
Vicerrectorado de Estudiantes,  
Empleo y Responsabilidad Social

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)

# ÍNDICE

<b>1.</b>	<b>Kudeaketa iraunkorra</b>	<b>5</b>
1.1	Ekintza zehatzak martxan jartzeko ikastegietarako laguntzak	5
1.2	Erosketa publiko arduratsua	6
1.3	Hondakinen kudeaketa arduratsua	6
<b>2.</b>	<b>Hezkuntza curriculuma</b>	<b>8</b>
2.1	Irakasleak Garapenerako Lankidetzan trebatzea	8
2.2	Administrazio eta zerbitzuetako langileak Garapenerako Lankidetzan trebatzea	9
2.3	IkZren sustapena	9
2.4	Irakasleekin lan egiteko jardunaldiak	9
2.5	Campus "laborategi" gisa	9
2.6	Sareetan parte hartzea	11
2.7	Garapenerako Lankidetzaren inguruko praktiken eta Gradu Amaierako Lanen (GAL) programa	13
<b>3.</b>	<b>Garapenerako Lankidetzaren Bulegoaren jarduerak</b>	<b>14</b>
3.1	Lankidetzaren bultzatzeko hitzarmenak	14
3.1.1	Beste administrazio publiko batzuekin	14
3.1.2	EAEko erakunde sozialekin	14
3.2	Garapenerako Unibertsitate Lankidetzako (GUL) proiektuetarako diru-laguntzak	14
3.3	Gizarte mugimenduekin lankidetzan jarduerak egiteko diru-laguntzak	15
3.4	Garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren jarduerak eta jardunaldiak	15
3.4.1	Jardunaldiak eta topaketak	16
3.4.2	Sentsibilizazioa eta eztabaida	16
3.5	Asilo eskatzaileen eskubideen alde egindako jarduerak	16
3.6	Aholku teknikoak Ilei, AZPei eta ikasle elkartei	18
3.7	Ikasleentzat antolatutako ikastaro monografikoak	18
3.8	Garapenerako Lankidetzaren inguruko unibertsitate praktikak eta Gradu Amaierako Lanak (GAL)	19
<b>4.</b>	<b>Jarduera Solidarioak eta gizarte erakundeak</b>	<b>23</b>
4.1	Hautazko kredituak aitortzea elkartasun eta lankidetzaren jarduerak egiteagatik	23
4.2	Kredituak aitortzea jarduera osagarriak egiteagatik	23
4.3	Medikuntzako ikasleentzako boluntariotza programa autokudeatua	23
4.4	Boluntariotzaren II. Azoka	24
4.5	Lankidetzaren hitzarmenak gizarte-erakundeekin	26
4.5.1	UNIKIDE programa - UPV/EHU	26
4.5.2	GIZALDE programa - UPV/EHU	26
4.6	Jardunbide egoki iraunkorrak	26
4.6.1	Mugikortasunaren astea	26
4.6.2	Hozkailu solidarioa	27
4.7	Ikasleei ostatu emateko programak	27
4.7.1	Ostatuarekin lotutako ikasle atzeritarrentzat	27
4.7.2	Ostatuarekin lotutako beste ekimen batzuk	27
4.8	Gizartearekin partekatzen	27

# GIZARTE ERANTZUKIZUNEN ZUZENDARITZAREN MEMORIA 2015/2016 ikasturteko jarduerak

Duela hogeitarik baino gehiagotik, planetako desoreka ekologiko, ekonomiko eta sozialek zer-nolako erronkak planteatzen dituzten eta pertsonen nola eragiten dieten jabetuta, unibertsitateak pixkanaka joan dira garapen iraunkorarekin konpromisoa hartzen. Denbora horretan ekimen ugari sortu dira hainbat maila eta erritmotan, eta goi mailako hezkuntza erakundeak esparru horretan egun dauden bezala egotea ekarri dute.

UNCED Ingurumen eta Garapenari buruzko Mundu Batzordeak, Brundtland Batzordeak 1987an emandako "Gure Etorkizun komuna" txostenaren bidez, Garapen Iraunkorra kontzeptua txertatu zuen, eta honela definitu zuen: *"pertsonen egungo beharrezkoak asebetetzen dituen garapena, etorkizuneko belaunaldiak beren beharrezkoak asebetetzeko izan behar duten gaitasuna arriskuan jarri gabe"*.

Alde horretatik, UPV/EHUk bat egiten du UNESCOK 1988an XXI. mendeko Goi mailako Hezkuntzari buruzko Mundu Adierazpenean jasotako kezkarekin: *"Ikuspegia eta Ekintza"*, goi mailako hezkuntzaren xedeak eta balio funtsezkoak oraindik eta gehiago indartzeko eta sustatzeko; bereziki, garapen iraunkorra bultzatzeko eta gizarte osoa hobetzeko xedea". Izan ere, hezkuntza da garapen iraunkorra lortzeko behar diren aldaketak eragin ditzakeen tresnarik sendoenetako bat.

Bestalde, CRUE Espainiako Unibertsitate Errektoreen Biltzarrak, CADEP<sup>2</sup> Ingurumen Kalitatearen eta Garapen Iraunkoraren Lantaldearen bidez, ezartzen du goi mailako hezkuntza erakundeen esparruan garapen iraunkoraren kontzeptuak barne hartzen dituela ingurumen kalitatea, justizia soziala eta epe luzerako ekonomia ekitatiboa eta bideragarria.

Hezkuntza Ministerioak 2010ean argitaratutako 2015erako Unibertsitate Estrategia ere (EU2015) ildo beretik doa, eta unibertsitateko gizarte erantzukizunaren inguruko lanerako ardatz zentral bat ezartzen du: *"Gizarte erantzukizuna funtsezkoa da unibertsitateak gizaratearekin eta bere garaiarekin nahiz etorkizuneko belaunaldiarekin duen konpromisoan"*.

UPV/EHUk, bere estatutuaren, hitzematen du<sup>3</sup> ekonomia, gizarte eta ingurugiroaren jasangarritasunerako irizpideei jarraiki erango dituela aurrera eguneroko zereginak. Konpromiso hori berretsiz, 2012-2017ko Plan Estrategikoaren ardatz nagusietako bat (V. ardatza) gizarte konpromisoari buruzkoa da, eta, hain zuzen ere, jartzen du *"jakintza eraikitze lanak konpromiso etiko garbia eta gizarte erantzukizuna du, eta giltzarria da herritarren belaunaldi berriak trebatzeko eta iritzia sortzeko"*. Era berean, konpromisoa hartzen du unibertsitatearen proiektzioa eta zabalkundea gizaratearen eta kulturaren arloko desberdintasunak murriztera eta bizitza politiko, kultural eta sozialean gehiago parte hartzea ahalbidetuko duten egoerak sortzera bideratzeko, zenbait plan sektorial abian jarrita, besteak beste, "Berdintasun Plana" eta "Garapenerako Lankidetzaren Arloko Lanerako Plana". Horrez gain, hitzematen du *"unibertsitateko hideak inguruko arazo sozial eta kulturaletan gehiago inplikatu"* dituela.

Ildo horretan, Nazioarteko Bikaintasun Campusa aipamena duen Euskampus proiektuaren helburu nagusietako bat da iraunkortasunaren bidez lortzea unibertsitate bikaintasuna. Planteamendu horren abiapuntua da bikaintasunak barne hartzen dituela ingurumenarekin konprometitutako eta kode etikoa eta jardunbide onetan oinarrituriko campus solidario, osasungarri, iraunkor eta eguru baten printzipio eta balioak.

Espainiako estatuan, UPV/EHU aitzindaria izan zen gizarte erantzukizuna ardatz zuen errektoreordetza bat sortzen. Horrekin, agerian jarri zuen unibertsitate iraunkoragoa, independenteagoa, parte-hartzaileagoa eta gardenagoa lortzeko hartuta zuen konpromisoa. Errektoreordetza horrek Garapen Iraunkoraren inguruko politikak sustatzen ditu, eta politika horiek unibertsitateko gainerako errektoreordetzen eta egituren bidez gauzatzen dira.

UPV/EHUren ustez Unibertsitateko Gizarte Erantzukizunak berekin dakar ingurumen iraunkorarekin konprometitutako kudeaketa politika ezartzea, eragina izango duena bai prestakuntzan bai ikerkuntzan, ezagutzaren transferentzian eta unibertsitateko eguneroko jardunean. Halaber, gizarateari ildo horretan lortutakoak berri ematea ere badakar.

Memoria honen bidez, Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaritzak giza garapen iraunkorari laguntzeko egin dituen politika eta jardueren berri eman nahi da, eta, gainera, erantzuna eman nahi zaie nazioko zein nazioarteko organismoek halako memoriak edo txostenak idazteko egiten dituzten eskaerei.

*Memoria hau, batetik, interesa duten guztiei beharrezko informazioa emateko bidea da, eta, bestetik, UPV/EHUk aipatutako politiken bitartez garapen iraunkoraren alde egiten duen lana, unibertsitate komunitate osoarena, ebaluatzeko eta etengabe hobetzeko tresna baliagarria.*

1 UNESCO, 1987ko urria. <http://www.un-documents.net/our-common-future.pdf>

2 [Curriculumean iraunkortasuna txertatzeko gidalerroak](#), CRUE CRUEren Lantaldearen Batzorde Exekutiboak 2015/04/18an Valladoliden egindako saioan onetsitako agiria. CRUEren Biltzar Nagusiak 2005/10/27an onartutako agiria. CADEPek Zaragozako Unibertsitatean 2011/06/17an egindako osoko bilkuran onartu zuen berrikuspena, 2012ko martxoaren 9an Valentzian egindako osoko bilkuran zabaldu zuen.

3 1. artikulua [http://www.ehu.es/documents/3026289/3106907/Estatutos\\_UPV\\_EHU.pdf](http://www.ehu.es/documents/3026289/3106907/Estatutos_UPV_EHU.pdf)

2010eko martxoan, UPV/EHuren Iraunkortasunerako Bide Orria Diseinatzeko Lan Jardunaldia antolatu zen. Jardunaldi hori Gizarte Erantzukizunaren eta Unibertsitate Hedakuntzaren arloko Errektoreordetzaren estrategiaren barruan sortu zen, hain zuzen ere, iraunkortasunaren arloan egiten ari zirena identifikatzeko, indartzeko, ikusarazteko eta UPV/EHuren iraunkortasun plan estrategiko bat egiteko baliatzeko, kalitatezko ingurumen eta gizarte kudeaketa lortzea helburutzat hartuta.

Jardunaldian, UPV/EHuko iraunkortasunaren egoerari buruzko analisi orokorra aurkeztu zen<sup>4</sup>, hau da, UAM Madrilgo Unibertsitate Autonomoan gauzatutako esperientzia praktikoa. Hizlaria Javier Benayas del Álamo, CADEP-CRUEko idazkaria, izan zen, eta iraunkortasuna gure unibertsitatean integratzeko epe labur-ertainerako jardun ildo nagusiak identifikatu ziren.

UPV/EHuren Iraunkortasunari buruzko azterlanaren 0.bertsiotik eta UPV/EHuren 2014ko Iraunkortasunaren Bide Orri proposamenetik abiatuta eratu ziren azken urteotan, gehiago edo gutxiago garatuta, jarraitu diren helburuak eta ildo estrategikoak. 1. Taulan daude zehaztuta.

1. Taula. 2010eko Lan Jardunaldian zehaztutako helburu eta xedeak laburbiltzen dituen koadroa

HELBURUAK	XEDEAK
<b>1. INGURUMEN KUDEAKETA hobetzeko konpromiso instituzionala lortzea</b>	UPV/EHUK konpromisoa du iraunkortasunarekin.
	UPV/EHUKo ikastegi guztiek dituzte ingurumena hobetzeko planak.
	UPV/EHUK iraunkortasun sareetan jarduten du EAEn, estatuan nahiz Europan.
<b>2. IKERKUNTZA iraunkortasun irizpideekin indartzea</b>	UPV/EHUK ikerkuntzaren arloan iraunkortasunarekin dituen konpromisoak hartzea eta gauzatzea.
	Iraunkortasun irizpideak ikerkuntzan txertatzea.
	Iraunkortasunaren gaineko eta aldeko ikerkuntza indartzea.
	Ikerkuntzak hezkuntza curriculumaren iraunkortasunaren arloan sortzen dituen ezagutzen transferentzia sustatzea.
	Iraunkortasunaren inguruko ikerkuntza ikusaraztea, sozializatzea eta koordinatzea.
<b>3. Iraunkortasuna HEZKUNTZA CURRICULUMean txertatzea</b>	Unibertsitateak hezkuntza curriculumaren arloan iraunkortasunarekin dituen konpromisoak hartzea eta gauzatzea.
	Irakasleak iraunkortasunaren inguruan gehiago sentsibilizatzea eta trebatzea.
	Titulazio eta programetan iraunkortasunaren gaia ezartzea eta koordinatzea.
	Unibertsitate curriculumari iraunkortasunaren gaineko ikerkuntzaren emaitzak aplikatzea.
	Baliabideak modu iraunkorrean erabiltzea sustatzen duten irakaskuntza eta ikaskuntza metodologiak garatzea.
<b>4. Unibertsitate eragileak BOLUNTARIOTZAREN, PARTAIDETZAREN ETA KONPROMISOAREN inguruan mugiaraztea eta SENSIBILIZATZEA</b>	UPV/EHUKo ikasleek oso ontzat jotzen dute iraunkortasunaren gaia, eta aktiboki parte hartzen dute.
	Irakasleak EAEko iraunkortasunaren parte aktiboa dira.
	Gainerako unibertsitate eragileek (AZPak, Ilak, ...) aktiboki parte hartzen dute iraunkortasunaren arloan.
<b>5. PROZESUAREN jarraitutasuna eta iraunkortasuna bermatzea: antolakuntza eta baliabideak, ezarpena, ebaluazioa eta jarraipena</b>	Iraunkortasun prozesuak beharrezko egiturak eta konpromisoa ditu UPV/EHUn.
	EAEko eragileek UPV/EHUKo iraunkortasun prozesuan lagundu eta parte hartzen dute.

Bide Orrian azaltzen diren ildoak abian jartzeko, Gizarte Erantzukizunaren Zuzendaritzak bi bulego ditu gaur egun: Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa eta Iraunkortasun Bulegoa. Gainera, unibertsitateko kideek parte hartzeko organoa ere badu: UPV/EHUKo Lankidetzaren Kontseilua, hain zuzen ere. Operatibitate arazoak direla eta, ez dira memorian jaso Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak abian jarri dituen jarduerak guztiak (kontsultatu *Garapenerako Lankidetzaren Bulegoaren Memoria*), baina, hala ere, behar-beharrezkoak izan dira UPV/EHUK ekitatearen, iraunkortasunaren eta giza eskubideen alde egiten duen lanerako.

4 UPV/EHUKo iraunkortasunari buruzko azterlanaren 0 bertsioa

Unibertsitate bat ezin daiteke iraunkorra izan, ez badie gogor heltzen erakundearen oinarriari. Ezin dezakegu iraunkortasunaren alde jardun, baldin eta kudeaketa hobetzeko prozesuekin ez baditugu irakaskuntza berritzeko prozesuak uztartzen, irakaskuntzak ikerkuntzako aurrerapenen emaitza izan behar baitu. Aldi berean, ingurunearekin lotutako sentsibilizazio jarduerak egin behar dira, gure unibertsitate komunitatearen kontzientzian eragiteko. Horrenbestez, aurtengo ikasturteko jarduerak honako atal hauetan sailkatu dira:

1. Kudeaketa Iraunkorra.
2. Hezkuntza Curriculuma.
3. Garapenerako Lankidetzaren Bulegoaren jarduerak.
4. Jarduera solidarioak eta gizarte erakundeak.

## 1. KUDEAKETA IRAUNKORRA

UPV/EHUren Iraunkortasunaren Plan Estrategikoaren zati handi baten xedea da kudeaketa iraunkorra sustatzea gure Unibertsitateko fakultate, eskola eta eraikinetan, gure jardueren inpaktua murrizte aldera. Horretarako, unibertsitateko kide guztien parte-hartzea sustatzen ahaleginduko da, horiek bultzatzen baitituzte benetan ezartzen diren ekintzak.

### 1.1. Ekintza zehatzak martxan jartzeko ikastegietarako laguntzak

2015/16 ikasturtean unibertsitateko ikastegiaren % 100ek hartu dute ingurumen kudeaketa hobetzeko konpromiso instituzionalen bat.

Kudeaketa iraunkorreko prozesuak bultzatzeko politikari jarraituz, Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzak, Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzarekin batera, **ingurumen kudeaketa hobetzeko sistemak ezartzeko eta egiaztatze laguntzen deialdi** bat argitaratu zuen 2015eko ekainean. Deialdia zuzendu zitzaion ingurumen kudeaketa hobetzeko urratsak emateko konpromisoa hartzen duten eta Batzorde Ebaluatzaileak egiaztatutako hobekuntza emaitzaren bat lortzen duten UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko ikastegi, atal eta eraikinei.

Bizkaiko Campuseko bederatzi ikastegitako ekintzei eman zaie diru-laguntza: Arte Ederren Fakultatea, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea, Zientzia eta Teknologia Fakultatea, Zuzenbide Fakultatea (Bizkaiko Atala), Medikuntza eta Erizaintzako Fakultatea (Leioako Erizaintza atala), Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola, Bilboko Ingeniaritza Eskola, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Sarrikoko eta Elkanoko atalak).

Jarraian, 2015/16 ikasturtean ingurumen kudeaketa hobetzeko abian jarritako hainbat ekimen aipatzen dira:

- Hondakinak kudeatzeko ontziak/edukiontzia jarri dira
- Likido egoeran dauden hondakin arriskutsuen isuriak ekiditeko kubetoak jarri dira
- Toner birziklatu gehiago erosi dira
- Ur botilatxoak kendu eta pitxarrak eta edalontziak jarri dira
- Presentzia sentsoreak, etengailu automatikoak, sektorizazioa eta LED argiak instalatu dira
- Paper zuriaren ordez paper birziklatua jarri da
- Kopia funtzio anitzeko inprimagailuan zentralizatu dira
- Konketa eta tangetan urari jaregiteko denbora murriztu da
- Komunetan eskuak lehertzeko gailuak jarri dira
- Hondakinak kudeatzeko prestakuntza ekintzak antolatu dira ikasleentzat
- Ingurumen hobekuntzarekin loturiko Gradu Amaierako Lanak (GAL) egitea sustatu da
- Komunikazio, sentsibilizazio eta kontzientziazio kanpainak egin dira

Ildo beretik, hainbat ikastegik **EKOSCAN Ziurtagiria** ezartzen jarraitzea ahalbidetu du Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzak. Ziurtagiri hori ezartzearen helburua da erreminta ez oso konplexua aprobetxatzea parte hartzea eta gardentasuna sustatzeko, gure Unibertsitateko ikastegiak hondakinaren esparruan ingurumen hobekuntzarako ekintza eta emaitzetan inplikatu daitezen.

Ziurtagiria lortzeko 4 ikuskapen gainditu behar dira (bat hasieran eta jarraipeneko beste hiru, urtean bat), eta horiek gainditu ondoren lortzen da Ekoscan Plus Ziurtagiria. Ekoscan Plus mantentzeko urtero gainditu behar da ikuskapena.

2015/16 ikasturtean Ekoscan ziurtagiria lortzeko honako ikuskapenak egin dira:

2. Taula. 2015/16an emandako Ekoscan ziurtagirien koadroa

CAMPUSA	IKASTEGIA	IKUSKAPEN ZK.
Araba	Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza UE	Ekoscan Plus
Bizkaia	Bilboko Ingeniaritza Eskola	Ekoscan Plus
	Bilboko Irakasleen UE	2. ikuskapena
	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Elkano)	3. ikuskapena
Gipuzkoa	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Donostia)	Ekoscan Plus
	Donostiako Irakasleen UE	3. ikuskapena
	Carlos Santamaría eraikina	2. ikuskapena
	Kimika Fakultatea	1. ikuskapena

## 1.2. Erosketa publiko arduratsua

Erosketa publiko arduratsua da administrazio publikoek produktuak edo zerbitzuak etikaren, ingurumenaren eta gizartearen arloko irizpideak betez erostea.

Erosketa arduratsuaren barruan sartzen dira erosketa etikoa, erosketa berdea eta erosketa soziala.

UPV/EHUK etikaren, gizartearen eta ingurumenaren irizpideak txertatu nahi ditu kontratazioak esleitzean eta betetzean, eta, horretarako, errektorearen zirkularra argitaratu du kontratazioak egiteko irizpide sozialak, etikoak eta ingurumenekoak jasotzeko.

Horrela, UPV/EHUKo Kontratazio Zerbitzuak ingurumen eta gizarte irizpideak ezarri ditu hainbat kontratutan, eta Eusko Jaurlaritzako IHO-BE Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoaren laguntza izan du horretarako.

## 1.3. Hondakinen kudeaketa arduratsua

Garapen iraunkorraren esparruan, UPV/EHUK gizartearekin hartuta duen konpromisoetako bat da hiru campusetan, horietako ikastegietan eta ikerketa unitateetan sortzen diren hondakinak modu arduratsuan kudeatzea. Helburu horrekin integratu du Unibertsitateak bere antolaketa egituran "Hondakinen eta Ingurumen Kalitatearen Kudeatzailea".

Zerbitzu horren bitartez, Unibertsitateko kideak ingurumenaz kontzientziatzea sustatzeko ekintzak koordinatzen dira, eta arreta jartzen da jardura estrategia baten inguruko sentsibilizazioan, dinamizazioan eta inplikazioan. Horretarako, beharrezkoa da pertsona guztiek elkarrekin jardutea sortzen ditugun hondakinak modu arduratsuan kudeatzen.

Honakoak dira **lan ildo** nagusiak:

- Hondakin arriskutsuen arloan aplikatzekoa den **legeria betetzen** dela zaintzea: Unibertsitatean eguneroko jardunean sortzen diren hondakinak gaika biltzeari dagokion dokumentazio guztia erregistratzea eta horren jarraipena egitea.
- Unibertsitatearen eta ikastegien **hondakinak kudeatzeko protokoloa** osatzen eta ezartzen laguntzea: barruko eta kanpoko kudeaketa, biltegiatzea, legezkatzea, dokumentazio kontrola, etab.
- Hondakinak ateratzeko, berrerabiltzeko, balioztatzeko eta deuseztatzeko prozesua kudeatzen duten **kanpoko enprekiko harremanak**.
- **Aholku teknikoa** ematea ikerketaren arloko unibertsitate ikastegi eta egiturei ingurumen kudeaketa hobetu dezaten: bilerak egitea ikastegietako hondakinen kudeaketaren arduradunekin, eta laguntza ematea hondakin jakin batzuen kudeaketa zehatzari buruzko kontsultetan.
- Ingurumenaren eta hondakin kudeaketaren arloko **prestakuntza eta informazio** orokorra eta/edo espezifiko jorrazteko ikastaroak diseinatzen eta ematen laguntzea.
- Hondakin arriskutsuak arduraz kudeatzeko eta **minimizatzeko** sentsibilizazio eta kontzientziazio kanpainak eta **ekintzak** koordinatzea.

Zehazki, honako **ekintza** hauek gauzatu dira 2015eko irailtik 2016ko uztaiera bitartean:

- **Bisitak** egin dira hondakin arriskutsuak sortzen dituzten unibertsitate ikastegietako **instalazioetara**. 2015/16 ikasturtean hainbat bisita egin dira unibertsitate ikastegietako laborategietara. Bisita horien helburua izan da hondakinak kudeatzeko barneko prozesua ezagutzea eta prozesu hori hobetzeko aholkuak ematea. Bereziki nabarmentzekoak dira ikerketa zentro berrietara egindako bisitak: Arabako Campusean Mikaela Portilla Zentroa eta Bizkaiko Campusean Martina Casiano Plataforma Teknologikoa, Leioako Animalia Bioteknologiarako Gunea eta Zamudioko Fabrikazio Aeronautiko Aurreratuko Zentroa.
- **Koordinazio bilerak** egin dira hondakin arriskutsuak sortzen dituzten ikastegietako zuzendaritza taldeen arduradunekin: 2015/16 ikasturte osoan zehar egin dira bilerak zuzendaritza taldeak berak edo hondakinak kudeatzeko teknikariak eskatuta. Zuzendaritza taldeak eskatutako bileretan, gai nagusia izan da hondakinak kudeatzeko barneko prozedura (ontzien stockak, hondakinak laborategietan eta biltegietan gordetzeko prozesua, barne erantzukizunak, etab.), eta teknikariak eskatutako bileretan, berriz, ikastegiko hondakinak ateratzen direnetik aurrera sortzen diren gorabeherak aztertu dira eta gorabehera horiek murrizteko neurriak landu dira.

- **Laguntza tekniko**a eman zaie hondakin arriskutsuak sortzen dituzten ikastegietako **langileei**, sortzen diren hondakinak murriztearen inguruko zalantzak argitzeko eta kudeatu beharreko hondakinen edukiontzia egoki bereizteko, sailkatzeko, biltegitratzeko eta etiketatzeko.
- **Ekonomikoki kudeatu** da Unibertsitateak urtean sortzen dituen hondakinak kudeatzeko UPV/EHUk jartzen duen aurrekontu saila. Zerbitzu horrek hondakin toxiko zein sanitarioen bilketen fakturazioa kudeatu du (albanarak jaso, berrikusi, kontrastatu eta fakturak ordaindu). Era berean, ENRESA enpresa nazionalak hondakin erradioaktiboak biltzeko egiten duen lanaren fakturak ordaindu dira, baita Eusko Jaurlaritzaren (GV/EJ) tasak ere, lan hauei dagozkienak: UPV/EHUko instalazio erradioaktiboak urtero berrikustea, irekitzea, aldatzea eta bertan behera uztea. Horrez gain, kanpoko enpresa baimenduek instalazio erradioaktiboetako langileei urtero egiten dizkieten dosimetrien fakturak ere ordaindu dira.
- **Hondakin arriskutsuen zama**lanak **egiaztatu dira**, salgai arriskutsuen errepide garraioari buruzko Europako akordioako ADR araudiak eragindako ikastegietan: zehazki, Zientzia eta Teknologia Fakultatean, Kimika Fakultatean, Bilboko Ingeniaritzako Goi Eskola Teknikoan eta Farmazia Fakultatean.
- UPV/EHUko Hondakinen eta Ingurumen Kalitatearen Teknikari Kudeatzaileak, ikasturte osoan, egiaztatze lan horietan parte hartu du, eta garraiolariaren eta garraio bidearen dokumentazioa begiratu du, ibilgailuaren ekipamendua ikuskatu du, eta hondakinak kargatzeko prozesua egiaztatu du (hondakinak etiketatzea eta ontziratzea, paletak egoki eta seguru jartzea eta kargatzea, kargaldian eta kargaren ondoren kontrolak egitea, garraio gutunak ematea, etab.). Gainera, hondakinak kudeaketa enpresa baimenduaren instalazioetan utzi arte garraiolariak berekin eraman behar duen dokumentazioa izenpetu du.
- 2015eko abenduan Bizkaiko Campuseko (Leioa-Erandio) II Gelategia eraikinean erabiltzeari utzitako ekipo elektrogeno bati lotutako depositu bateko gasolio-hondarrak erretiratu ziren. Zama lanak egiaztatu dira Ebaluazio Txosten Teknikoan sartzeko, otsailaren 14ko 2014/97 Errege Dekretuan, Salgai arriskutsuak Espainiako lurraldean zehar errepidez garraiatzeko operazioak arautzen dituenean, ezarritakoari jarraituz.
- Hondakin arriskutsuak kudeatzeko nahitaezko **administrazio dokumentazioa kudeatu da**, GV/EJko Ingurumen Sailaren Ingurumen Informazioa Kudeatzeko Sistema Integrala (IKS-eeM) jarraituz: hondakinak sortzen hasi diren ikastegien erregistroa eta hondakinak eramateko jakinarazpenen, onarpen agirien eta sortutako hondakinen kontrol eta jarraipen agirien segimendua egin da.
- **Sortutako hondakin sanitarioen eta bestelako hondakin arriskutsuen berri eman da**, eta unibertsitate ikastegiak **EAEko Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Txikien Erregistroan** (HAETE) inskribatu dira:
- 2016ko maiatzean GV/EJko Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari eskatu zitzaion onartzeko Zamudioko Fabrikazio Aeronautiko Aurreratuko Zentroa EAEko HAETEn inskribatzeko prozedura.
- 2016ko uztailan, GV/EJko Osasun Sailaren aurrean tramitatu zen sortutako hondakin sanitarioei eta beste hondakin arriskutsu batzuei buruzko jakinarazpena, eta Ingurumen Sailaren aurrean eskatu zen Bizkaiko Campuseko bi ikerketa zentro berriak (Leioa-Erandio atala) inskribatzeko kudeaketa: Martina Casiano Plataforma Teknologikoa eta Animalia Bioteknologiarako Maria Goyri Gunea.
- Produktu kimiko sukoiak eta hondakin kimikoak **biltegitratzeko guneak** egokitzen parte hartu da eta aholkularitza eskaini da Gipuzkoako Campuseko Joxe Mari Korta Zentroan, Arabako Campuseko Mikaela Portilla Ikerketa Zentroan eta Bizkaiko Campuseko (Leioa-Erandio atala) Biofisika Institutuan.
- Hondakin toxiko eta arriskutsuak biltzean sortzen diren **gorabeherak kudeatu dira**: gorabehera horiek tartean dauden ikastegiei eta pertsonaei jakinarazten zaizkie, eta UPV/EHUk hondakin arriskutsuak sortzen eta/edo kudeatzen dituzten langileen datu-basea osatzen duten pertsona guztiei helarazten zaizkie. Gorabeherak prestakuntzaren ikuspuntutik lantzen dira; hau da, ahalegina egiten da denen artean hondakin biltzea guztietako alde onetatik eta hutsegiteetatik ikasteko.
- Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako Campusetan UPV/EHUko Segurtasun Kontseiluaren zerbitzu integralerako baimendutako kanpoko enpresa **kontratatzeko prozeduretan** parte hartu da:
- **PN 25/16 Prozedura Negoziatua**: CONSEUR 2000 enpresari esleitu zitzaion, 2016ko maiatzaren 23ko Gerentzia Ebazpenaren bidez; kontratazio espedientearen memoria eta baldintza teknikoaren plegua idatzi ziren; balorazio batzorde teknikoan eta eskaintzak ebaluatzeko txostena idazten parte hartu zen.
- **Prestakuntza eta sentsibilizazio** saioak egin dira etengabe, eta ingurumenari eta, bereziki, hondakin arriskutsuen kudeaketari buruzko ikastaro eta mintegiak antolatuta dira.
  - 2015eko urriaren 28, 29 eta 30ean bi ordu eta erdiko hiru ikastaro antolatuta ziren **"Hondakin sanitarioen kudeaketa UPV/EHU"** izenburupean, hiru campusetan bana.
  - **Norentzat**: UPV/EHUko hiru campusetako ikastegi, sail eta laborategietako hondakin arriskutsuen kudeaketaren eta ekoinpenezaren arduradunentzat eta hondakin horien kudeaketan ardura duten langile teknikoentzat (AZPak, IIak eta doktoregaiak).
  - **Helburua**: UPV/EHUko ikastegi, sail eta laborategi bakoitzean hondakin sanitarioak bereizteko prozedurak aztertzea eta hondakinak sailkatu, minimizatu, biltegitratu eta jasotzearen arloan hobetu daitezkeen alderdiak aztertzea, martxoaren 3ko 21/2015 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko hondakin sanitarioen kudeaketa arautzen duenean, ezarritakoari jarraituz.
  - **Parte-hartzea**: 108 pertsonak parte hartu zuten (70ek Bizkaian, 19k Araban eta 19k Gipuzkoan). Parte-hartzaileen % 72 emakumezkoak izan ziren, eta % 28 gizonezkoak. Parte-hartzaileen % 70 IIak izan ziren, eta horien artean doktoratu aurreko ikasleak, eta gainerako % 30 UPV/EHUko AZPko teknikariak.
  - **Ebaluazioa**: Ikastaroak amaitzean, parte-hartzaileek ebaluazio inkesta bat bete zuten, eta zenbait esaldi proposatu zitzaizkien horiekin zenbateraino zeuden ados adieraz zezaten. Honakoak izan ziren emaitzak:
    - Ikastaroari buruzko gogobetetasun orokorra 10etik 8,40koa izan zen.

- Hiru saioen batez besteko puntuazio txikiena 10etik 8,2koa izan zen ("erantzundako zalantzak"), eta batez besteko puntuaziorik onena 10etik 9,2koa ("parte hartzea erraztu da"). Batez besteko gainerako puntuazioak bi zifra horien artekoak izan ziren.
- Gipuzkoako Campusean eta Bizkaiko Campusean bakarrik jaso zen 10etik 8tik beherako puntuazioa. Lehenengo kasuan, "baliatutako denboraren egokitasuna" atalean (7,8) eta bigarren kasuan "argitutako zalantzak" atalean (7,9).
- Alderdi positiboen artean nabarmentzen dira ikastaroaren praktikotasuna eta erabilgarritasuna, "azalpenen argitasuna", "gertutasuna" eta "parte-hartzea".
- Hurrengo ikastaroak hobeto emateko, honako iradokizun hauek egin dira:
  - Zalantza pertsonalak modu "pertsonalizatuan" argitzea.
  - Ahalegin handiagoa egitea hondakin sanitarioak sortzen eta kudeatzen dituzten langile guztiak joan daitezten saioetara: deialdi zuzenagoa egitea.
  - Ikastaroaren datak irakasle eta ikertzaileen prestakuntzako datetara egokitzea (urtarrila/ekaina).
  - Master eta Doktoregoko ikasleei parte hartzeko aukera ematen jarraitzea.
  - Hondakin sanitarioen kudeaketa zuzenari buruzko poster bat egitea.
- 2015eko abenduaren 3an lau orduko ikastaro bat antolatu zen Arabako Campusean: "**Hondakin arriskutsuen kudeaketa UPV/EHU: prozedura, sailkapena eta murriztea**".

Norentzat: UPV/EHUko Arabako Campuseko ikastegi, sail eta laborategietako hondakin arriskutsuen kudeaketaren eta ekoinpenez arduradunentzat eta hondakin horien kudeaketan ardura duten langile teknikoentzat (AZPak, Ilak eta doktoregaiak).

Helburua: Hondakin arriskutsuekin lan egiten duten langileen eskura hondakin arriskutsuen kudeaketari buruzko oinarriko alderdi eta ezagutzak jartzea, eta, horretarako, jarduera profesionalean menderatu behar diren gairik garrantzitsuenak aztertzea, hondakinen kopurua eta arriskua murriztera bideratutako neurriak sustatu behar direla azpimarratzea, berrerabiltzeko, berreskuratzeko edo laborategian bertan tratatzeko aukerak baloratzea eta ahal den neurrian hondakinak sortzeko erostekak nola arrazionalizatu adieraztea.

Parte-hartzea: kastaroan 47 pertsonak hartu zuten parte, horietatik 32 emakumezkoak eta 15 gizonezkoak. Parte-hartzaileen % 75 Ilak izan ziren, eta % 25 AZPak.

Ebaluazioa: Ikastaroak amaitzean, parte-hartzaileek ebaluazio inkesta bat bete zuten, eta zenbait esaldi proposatu zitzaizkien horiekin zenbateraino zeuden ados adieraz zezaten. Honakoak izan ziren emaitzak:

- Ikastaroari buruzko gogobetetasun orokorra 10etik 7,58koa izan zen.
- Ikastaroaren batez besteko puntuaziorik okerrera 10etik 7,8koa izan zen (azalpenen argitasuna).
- Batez besteko puntuaziorik onena 10etik 9,3koa izan zen ("erantzundako zalantzak"). Era berean, 10etik 9,2ko batez besteko puntuazioa lortu zuen "saioa egiteko lekuaren egokitasuna" itemak.
- Ikastaroaren alderdi positibo aipagarrienak hauek dira: "laborategian sortutako hondakinak kudeatzeaz sentsibilizatzen laguntzen du"; "ikastaroa praktikoa eta baliagarria da"; "zalantzak banaka eta taldean argitu dira"; "antolakuntza eta parte-hartzea".
- Hurrengo ikastaroak hobeto emateko, honako iradokizun hauek egin dira:
  - Kontsultak eta zalantzak ikastaroaren garapenera egokitzea saioa etetea saihesteko.
  - Ikastaroaren iraupena murriztea eta laborategiko eguneroko lanera egokitzea.
  - Ikastaroaren datak irakasle eta ikertzaileen prestakuntzako datetara egokitzea (urtarrila/ekaina).
  - Informazio zehatzagoa: esate baterako, laborategiko erreaktiboaren bateraezintasunak zehaztu, laborategietako eguneroko arazoez hitz egin...

## 2. HEZKUNTZA CURRICULUMA

Ikasleak beren unibertsitate curriculumaren bidez iraunkortasunean trebatzea da Errektoreordetza honen helburu nagusietako bat. Badakigu, ordea, helburu hori lortzeko irakasleekin egin behar ditugula urratsak lehenbizi, lortu nahi ditugun emaitzak lortuko direla ziurtatzeko.

Hori dela eta, ahalegin handia egiten dugu irakasleekin lan egiteko, haiekin hausnartuta ikusteko nola eta zer tresnarekin izan dezakegun eragin zuzena gure titulazioen eduki akademikoan. Gainera, gero eta titulazio gehiagok txertatzen dute iraunkortasunaren ikuspuntua irakasgaietan, Gradu Amaierako Lanetan, Master Amaierako Lanetan eta/edo nahitaezko praktiketan; izan ere, jakintzagaia zeharkatu eta gizarte erantzukizunaren arloko alderdietara orientatzen du.

### 2.1. Irakasleak Garapenerako Lankidetzan trebatzea

Alde horretatik, 2015/16 ikasturtean "**Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren (GUL), curriculumean sartzea**" ikastaroa eman zitzaien irakasle eta ikertzaileei (II), 8 ordukoa eta campus guztietan. Ikastaroaren helburua zen, batetik, garapenerako lankidetzaren arloan pres-takuntza sakonagoa ematea beren eskoletan Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren (GUL) lantzen duten edo landu nahi duten UPV/EHUko irakasleei, eta, bestetik, hori curriculumean lantzeko tresna praktikoak ematea.



Era berean, unibertsitateek, horien artean UPV/EHUk, garapenerako lankidetzaren inguruko jokabide kodearekin bat egiteko hartutako konpromisoaz hausnartzeko kompetentziak landu ziren, eta GULak zenbait irakaskuntza esperientzian dituen oinarrizko ezaugarriak sakontzekoak. Prestakuntzan 22 pertsonak hartu zuten parte, 14 emakumezkoak eta 8 gizonezkoak, guztiak ere hiru campusetako diziplina eta ikastegi ezberdinetako irakasleak eta ikertzaileak.

## 2.2. Administrazio eta zerbitzuetako langileak Garapenerako Lankidetzan trebatzea

Unibertsitateko langileak gai horietan trebatzeko lan ildoari jarraituz, Garapenerako Lankidetzan Bulegoko teknikariei "**Generoa eta Garapenerako Lankidetzan**" gaiaren inguruko prestakuntza eman zaie. Horri esker, bulegoaren webgunean generoari buruzko atal berri bat sartu da. (<http://www.ehu.es/es/web/oficop/zertan-ari-gara->)

## 2.3. IkZren sustapena

Irakaskuntza berrikuntzaren esparruan, Ikaskuntza Zerbitzuaren (IKZ) aldeko apustua egin da unibertsitate curriculumean iraunkortasuna txertatzeko tresna gisa.

2015eko maiatzean, CRUE-Iraunkortasuna Batzorde Sektorialak (lehenago CADEPeK), "Institucionalización del Aprendizaje-Servicio como estrategia docente dentro del marco de la Responsabilidad Social Universitaria para la promoción de la Sostenibilidad en la Universidad"<sup>5</sup> izeneko agiri teknikoa onartu zuen. Agiri horrek sustatzen du **IkZ Espainiako unibertsitateetan instituzionalizatzea**, curriculumean iraunkortasuna txertatzeko, gizarte bidezkoagoa sortzen laguntzeko eta ikasleei konpetentziak garatzeko bidea ematen dieten ikaskuntza akademiko eta sozialak hobetzeko.

Instituzionalizatzearen azken helburua da metodologia hori sustatzea eta unibertsitatean erabiltzea, ikasleek gizartearentzako zerbitzuak egin ditzaten ikaskuntza helburuekin loturik. Gaur egun, Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaritzak, metodologia horretan eskarmentu handia duten irakasle kualifikatuekin batera, instituzionalizatzeko lan horretan dihardu UPV/EHU. (<http://www.ehu.es/es/web/iraunkortasuna/ikaskuntza-zerbitzua>)

Proiektua Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolako irakasleen ekimenez abiarazi zen, eta ikastegiaren zuzendaritzaren babes instituzionala du. Eskolan eskainitako lehendabiziko IkZ programa da, eta helburu nagusia du ikasleak gizarteko errealitateak eta arazoak ezagutzen eta aztertzen hastea, hezkuntzarekin lotutakoetan arreta berezia jarrita. Horretarako, ikasleei aukera ematen zaie ikaskuntza komunitateen inguruko proiektu batean parte hartzeko Vitoria-Gasteizko IPI Sansomendi ikastetxean. Azken batean, gizarte langintzak esparru horretan betetzen duen egitekoaz hausnarketa eginarazten die ikasleei.

Halaber, hainbat ikastegitako irakasleei aholkuak eman zaizkie aldian-aldian, metodologia hori beren ikaskuntza programetan ezar dezaten. Halaxe egin da, esate baterako, Bizkaiko Campuseko Erizaintzako UEn eta Esperientzia Geletan.

## 2.4. Irakasleekin lan egiteko jardunaldiak

2011tik urtero antolatzen dira irakasleentzako mintegiak unibertsitate curriculumak hobetzeko estrategia parte-hartzaile bat diseinatzeko jarraitu ahal izateko. Ildo horretan, 2016ko uztailaren 7an eta 8an "**Iraunkortasunerako heziketa**" mintegia antolatu zen irakasle eta ikertzaileentzat, eta helburu zuen irakaskuntza egoera ideala ikustea edo egoera horretara iristen ahalegintzea. Jarraitu egin zen 2015ean *Backcasting* metodologiari buruz hasitako prozesuarekin, eta aurreko urtean sortutako talde bakoitzean prozesuaren egoera zertan zen aztertu zen *blended-learning* modalitatea lantzeko, bisio bat adostera iritsi ahal izatea helburutzat hartuta. Aztertu zen UPV/EHUk *Backcasting* prozesu erreala egin ahal izateko aukera, eta, beharrezko izanez gero, beste unibertsitate batzuekin adostuta Europako Proiektu bat eskatzea. **Campus Bizia Lab** proiektu instituzionala aurkeztu zen. Proiektua *Erasmus University Educators for Sustainable Development* (540051-LLP-1-2013-) proiektu europarraren esparruan landu zen, eta diziplinaz gaindiko proiektuetan lankidetzan metodologiari buruzko lan saio bat egin zen eta ezagutza arlo ezberdinek parte hartu zuten. (<http://www.ehu.es/es/web/iraunkortasuna/iip-mintegia-2016>).

Bestalde, mintegi honen baitan Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzaren Iraunkortasunaren arloko Berrikuntzarako Laguntzen Deialdiaren esparruan 2015/16 ikasturtean egindako proiektuak partekatu ziren.

## 2.5. Campusa "laborategi" gisa

2015/16 ikasturtean Iraunkortasunaren arloko Berrikuntzarako Laguntzen III. Deialdiari dagozkion laguntzak esleitu ziren. Laguntza horien bidez, UPV/EHU iraunkortasunaren kultura sustatuko duten proiektuak bultzatu nahi dira. Horretarako, unibertsitateko curriculumean edo kudeaketan aldaketak eragingo dituzten proiektu berritzaileak diseinatzeko eta garatzeko laguntzak ematen dira.

Iraunkortasunaren arloko Berrikuntzarako Laguntzen III. Deialdian 13 proiektu onartu dira. Proiektuok unibertsitatean bertan aplikatu behar dira (Campusa "laborategi" gisa), eta era askotako gaiak buruzkoak dira: gizarteko eta hezkuntzako erronkak, parte-hartze soziala, eresketa berdea, energia berriztagarriak, hondakinen kudeaketa eta energia eraginkortasuna unibertsitate komunitatearen partaidetzarekin hobetzeko estrategiak, besteak beste. 3. Taulan daude zehaztuta. Lantaldeak IIek, AZPeK eta ikasleek osatzen dituzte. Gainera, proiektuok parte hartzen duen taldearen ikasketekin lotzen dira, eta,aldi berean, Campusean iraunkortasunarekin dauden arazoetarako irtenbideak proposatzen dituzte.

Iaz bezala, balorazioa ona izan da, eta, Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzak, beraz, Iraunkortasunaren arloko Berrikuntzarako Laguntzen IV. Deialdia argitaratu zuen 2016ko ekainean. 4. Taulan daude deskribatuta azken deialdi honetan onartutako proiektuak.

5 [Institucionalización del Aprendizaje-Servicio como estrategia docente dentro del marco de la Responsabilidad Social Universitaria para la promoción de la Sostenibilidad en la Universidad](#). CRUE/Iraunkortasuna, 2015.

**3. Taula. Iraunkortasunaren arloko Berrikuntzarako Laguntzen 2015eko deialdian onartutako eta 2015/16 ikasturtean gauzaturako proiektuak laburbiltzen dituen koadroa**

TITULUA	ARDURADUNA
Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko UEn eta Industria Ingeniaritza Teknikoko UEn sortutako janari hondakinak murriztu eta tratatzeko neurrien inbentarioa, diseinua eta ezarpena	M <sup>a</sup> Arritokieta Ortuzar Irigorri
Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Eskolaren (IITUE) analisi energetikoa; egungo egoera eta energia berriztagarria ezartzeko proposamenak	María Gonzalez Alriols
Giza Nutrizioko eta Dietetikako Graduako ikasleekin iraunkortasuna barneratzeko lanean	Arrate Lasa
neurGAI hobetzen eta zabaltzen - neurGAI 2.0	Gorka Bueno Mendieta
Aerosorgailu baten palen fabrikazioa eta erabilpen iraunkorra	Javier Bilbao Landatxe
Unibertsitatearen eta lan munduaren artean lankidetzan ikastea iraunkortasunaren inguruan	Maite Arandia Loroño
Irakaskuntza praktikak egitea baratze ekologiko batean	Jose Ramon Mauleon Gómez
Hezkuntza komunitario iraunkorra unibertsitatetik	Rosa Arburua Goienetxe
Elikadura iraunkorra aztertu eta sustatzea Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleen artean	Marta Arroyo Izaga
Unibertsitateko esparruetako airearen kalitatea hobetzeko bioiragazkiak	Astrid Barona Fernandez
Ibaetako Campuseko osasunaren barometroa	Pedro Aramendi Jauregi
Ikasleak ingeniarietza iraunkorreko enpresetan integartzeko bideak	Iñaki Ochoa de Eribe Vázquez
Surfeko oholek ingurumenean duten inpaktuaren analisia GALen bidez	Cristina Peña Rodriguez

**4. Taula. Iraunkortasunaren arloko Berrikuntzarako Laguntzen 2016ko deialdian onartutako proiektuak laburbiltzen dituen koadroa**

TITULUA	ARDURADUNA
Bilboko Ingeniaritza Eskolako argi kontsumoaren azterketa, LED bonbillen alternatiba kontuan hartuta	Javier Bilbao
Birringailu bat diseinatu eta egitea plastikoak birziklatzen dituen lantegi baterako	Eneritz Onaindia
Elkarlanean diziplina arteko irakaskuntza praktikak egitea Arabako Campuseko baratze ekologikoan	Aritz Ruiz-González
ComposING: Ingeniaritza Eskolako unibertsitate komunitatea biohondakinak birziklatzean eta horien aplikazioetan inplikatzeko	Estibaliz Sáez de Cámara
Estrusio-makina bat diseinatu eta egitea plastikoak birziklatzen dituen lantegi baterako	Xabier Garikano
Landareetan oinarrituta energia elektriko berriztagarria sortzea	Florencio Fernández
Iraunkortasunerako agertokiak Lehen Hezkuntzako 2. Modulurako	Araitz Uskola
Ikaskuntza-Zerbitzu proposamenak GALEan, Haur eta Lehen Hezkuntzako Graduetan kompetentziak garatzeko	Esther Cruz
Gipuzkoako Campusaren hiri-planifikazio iraunkorra bizi-zikloaren azterketatik abiatuta	Cristina Marieta
Ingeniaritza iraunkorra sustatu eta integratzea ikaslearen curriculumean: irakasgaiak eta Gradu Amaierako Lanak	Iñaki Ochoa de Eribe
Elikadura iraunkorrari eta gizarte-erantzukizunari buruzko tailerrak diseinatu eta hobetzea Vitoria-Gasteizko ikastetxeetan: zeliakia Haur Hezkuntzako haurrentzat	Virginia Navarro
Ongizatea, bizi kalitatea eta prebentzioa Unibertsitatean: UPV/EHUko ikasleekin egindako esperientzia	Pedro Aramendi

Elikagaien kontsumo arduraturako hezkuntza Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleentzat (UPV/EHU)	Marta Arroyo
Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolaren (Eibar) analisi energetikoa. II. zatia: azterlana sistema osora hedatzea. Energia efizientzia hobetzeko neurriak proposatzea	Maria González Alriols
Bilboko Ingeniaritza Eskolako ITI eta ITMOP sekzioen eraikinerako janari hondakinen konpostajetik sortutako lurrarekin fatxada begetala diseinatzea eta horrek ingurumenean duen eragina aztertzea	M <sup>a</sup> Arritokieta Ortuzar
Hezkuntza iraunkor inklusiboa. Begirada berriak unibertsitatetik	Rosa Arburua
Ekonomia iraunkorrari buruzko jardunaldiak UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean	David Hoyos

## 2.6. Sareetan parte hartzea

Curriculumean iraunkortasuna txertatzeko beste bide bat iraunkortasuna berritzeko sareetan parte hartzea da, ikuspegi aberatsagoa eskain diezaguten hezkuntza curriculumera kontzeptuak gehitzeko. Sare horien artean nabarmentzen dira Copernicus Alliance Goi mailako Hezkuntza Sarea eta CRUE-Iraunkortasuna Espainiako Unibertsitateen Sareko Batzorde Sektoriala.

### Copernicus Alliance

UPV/EHU Copernicus Alliance Goi mailako Hezkuntza Sareko kidea aktiboa da (<http://www.copernicus-alliance.org>). Sarea garapen iraunkorra sustatzeko sortu zen, eta helburu nagusia du iraunkortasuna sustatzea eta ikertzea, Europako Goi mailako Hezkuntza Esparruan (EEES) gizartearekin lankidetzan.

Sareko kide izateak dakar ideiak trukatzeko saioetan parte hartzea; horietan, esperientzia garrantzitsuak azaltzen dira, eta unibertsitateen zereginari eta unibertsitateek komunitatearekin duten loturari buruz eztabaidatzen da.

University Educators for Sustainable Development proiektua,

Copernicus Alliance sareak bultzatu du **UE4SD – Garapen Iraunkorrerako Unibertsitateko Hezitzaileen proiektua, sare akademikoak sortzeko Europako Batzordearen ERASMUS Lifelong Learning Programme programakoa**. Programak 3 urteko iraupena izan du, eta Gloucestershireko Unibertsitateak (Erresuma Batua) koordinatu du. Bertan Europako 52 unibertsitatek parte hartu dute, eta horietako bat UPV/EHU izan da. 2016ko ekainean amaitu zen.

ERASMUS sare akademikoak Europako lankidetzeta eta gai arlo espezifikoetako berrikuntza errazteko diseinatuta daude. Lagungarri dira goi mailako irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko, europar dimentsioa definitzeko eta garatzeko diziplina akademiko jakin batean, berrikuntza sustatzeko eta metodologia eta jardunbide egokiak trukatzeko. Hori lortzeko, sarean egiten da kooperazioa, goi mailako hezkuntza erakundeen, fakultateen eta unibertsitateetako sailen artean; halaber, elkarte eta enpresa profesionalak eta beste era bateko erakundeak ere inplikatu ditzake.

Garapen Iraunkorrerako Unibertsitateko Hezitzaileen UE4SD Proiektuak **Garapen iraunkorrerako Hezkuntzaren (GIH)** eta goi mailako hezkuntzaren kalitatea hobetzeko prozesuen arteko lotura du aztergai. UE4SD Proiektuaren helburua izan da gida estrategiko bat sortzea unibertsitateentzat, GIH berrikuntza bultzatzeko jardunbide akademikoan eta curriculumean, horretarako unibertsitateko hezitzaileentzako aukerak identifikatu eta sortuta garapen profesionalaren bidez GIH gaitasunak gara ditzaten. Azken helburua da unibertsitateko irakasleek behar besteko kompetentziak eta trebeziak izatea ikasleak, beren lan profesionalen eta bizitza pertsonalean, iraunkortasunari aurre egiteko prestatzeko.

Proiektuaren lehenengo fasean/urtean (2014) *“State of the art Report”* argitaratu zen, eta goi mailako hezkuntzako unibertsitate irakasleak GIHn prestatzeko aukerak identifikatzen dira bertan (<http://www.ue4sd.eu/outcomes/2014-12-16-14-08-40>). Proiektuaren bigarren fasean/urtean (2015) *“The Leading Practice Publication (LPP)”* argitaratu zen, eta bertan Europako goi mailako hezkuntzako garapen profesionalerako aukerei buruzko jardunbide egokien 13 adibide eskaintzen dira. Aukeraturako praktiken adibide horietako bat UPV/EHUren Iraunkortasunaren aldeko Berrikuntzarako Laguntzen Deialdia izan zen (<http://www.ue4sd.eu/images/2015/UE4SD-Leading-Practice-PublicationBG.pdf>)



Gainera, proiektuak *online* plataforma bat sortu du Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzan oinarritutako material praktikoekin, eta, bereziki, goi mailako hezkuntzarako (<http://platform.ue4sd.eu/>).

UE4SD proiektuaren hirugarren eta azken fasean/urtean *“Academy”* ekimena gauzatu zen Granadako Unibertsitatean 2016ko apirilean. Ekimenaren helburua da parte hartzen duten unibertsitateetako lantaldeekin, eta erakundea bera inplikaturik, gauzatu ahal izango diren GIHko garapen profesionalerako ekimenak sortu eta ebaluatzea. Hainbat unibertsitateetako taldeen artean lankidetzan

lan egiteko modu bat da. Proiektuaren fase honetan, UE4SD Proiektuan parte hartzen duten Europako unibertsitate guztien artetik hautatutako batzuek beren unibertsitatean inplementatzeko lau ekintza landu zituzten. Hautatutako unibertsitateetako bat UPV/EHU izan zen, eta Granadako Unibertsitatean egindako "Academy" ekimenean parte hartu zuen, eta emaitza izan da UPV/EHUn ezarri den **Campus Bizia Lab Programa**.



### Campus Bizia Lab programa

Campus Bizia Lab Programa (campusa laborategi gisa) *Erasmus University Educators for Sustainable Development* proiektuaren baitan garatu den ekimen bat da (UPV/EHUK 2013-2016 artean parte hartu zuen proiektu horretan), eta unibertsitatearen erronkei aurre egiteko, diziplinaz gaindiko ikerkuntza ikuspegiaren bitartez, administrazio eta zerbitzuetako langileen, ikasleen eta irakasleen arteko elkarlana du helburu. Programak curriculum izaera du. Lehen fase honetan Gradu Amaierako Lanen (GAL) eta Master Amaierako Lanen (MAL) bitartez gauzatuko da.

Campus Bizia Lab programaren helburuak dira:

- Diziplinaz gaindiko komunitate bat sortzea, era kooperatiboan lan egingo duena campusetan iraunkortasunik ezarekin lotuta haute-maten diren arazo eta erronkei konponbidea emateko.
- Lan eredu bat diseinatzea, garatzea eta ebaluatzea, aukera emango duena arrakastaz burutzeko UPV/EHUKo campusetako iraunkortasunarekin lotutako inpaktu handiko ikaskuntza prozesuak.
- Campus Lab proiektu instituzional bat artikulatzea eta ikusaraztea, bere ekintza erradioa UPV/EHUKo titulu guztietara pixkanaka zabalduko duena eta maila anitzeko jardunbide iraunkorrak sortuko dituena.

Ekimena UPV/EHUKo Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzako Iraunkortasun Bulegoak sustatu du Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuarekin (Graduko Ikasketen eta Berrikuntzarako Errektoreordetza) lankidetzan. Prozesuari hasiera emateko Campus Bizia Lab Programaren talde bideratzailea eratu zen gure unibertsitateko irakasle eta ikertzaileek eta AZPek eta kanpoko aditu batek osatuta. Era berean, mintegi bat egin da hiru campusetako irakasleekin proiektuaren helburua zehazteko eta, ikasleen ikaskuntza beharretara egokitzeko (GAL/MAL) iraunkortasunaren erronkek bete behar dituzten baldintzez, talde transdiziplinarrez eta gauzatze moduz gogoeta egiteko. Hasiera batean zehaztu dira iraunkortasunaren arloko Unibertsitatearen beraren erronkak, gero Campus bakoitzean mintegi espezifikoak egiteko. Honako erronkak planteatu dira:

- Arabako campusa: Ekonomia zirkularra eta komunitatea.
- Bizkaiko Campusa: Trantsizio energetikoa eta Ekonomia zirkularra.
- Gipuzkoako Campusa: Komunitate iraunkorrak: komunitate baratzak.

Programa koordinatzeko erreminta gisa jarri zen abian online ikastaro bat MOODLE plataforman, eta Campusetako moduluak eratu dira (Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba). Hasierako esparruak sintetizatu dira eta aurrean adierazitako lehentasuneko esparruak definitu dira irizpide pragmatikoak jarraituz.

2016ko ekainetik abendura bitartean hiru campusetako lantaldeen eta Pertsonalaren Gerentziaren, Campuseko Gerenteordetzen eta Zerbitzuetako Pertsonalaren arteko elkarlana ezarri da erakundearen babesa izateko eta lana koordinatzeko. Irakasle eta Ikertzaileek, AZPek eta ikasleek elkarrekin egiten dute lan Campus bakoitzean honako zeregin hauetan:

- GAL/MALen bidez aurre egin nahi zaion erronka bakoitza definitu, zehaztu da
- Aldeen artean jarduera protokoloak eta etikoak landu eta sinatu dira
- GAL/MALak garatu dira II tutorearekin batera
- Proiektuaren jarraipen bateratua egin da
- Emaitzak ebaluatu eta hedatu dira.

Bestalde, Campus bakoitzak diseinatu beharreko lanen egutegia egiten du eta ikasleekin egin beharreko prestakuntza-prozesua diseinatu du (prestakuntza bateratuaren lehenengo saioa, campusen arteko elkarrekin jarduna, jarraipena eta tutoretza eta lanen aurkezpena amaiera emateko biltzar batean).

Campus bakoitzak GAL/MALak hasteko egutegi ezberdina du. Bizkaiko Campusean 2016ko azken hiruhilekoan hasi ziren aipatutako urratsak ematen, eta Arabako eta Gipuzkoako campusetan, berriz, 2017ko lehenengo hiruhilekoan.

Berariaz landuko da programaren zabalkundea, eta komunikazioak esparru profesionaletan eta zientifikoetan aurkeztuko dira. Lehenengo edizio hau amaitzean (2017) emaitzen azken ebaluazioa egingo da eta laguntzako materialak argitaratuko dira (protokolo etikoa, mentorizazio eta jarraipeneko gida, GALak eta MALak iraunkortasunaren ikuspegitik ebaluatzeko irizpideak).

## CRUE-Iraunkortasuna

CRUE-Iraunkortasuna CRUE-Universidades Españolas erakundeko Batzorde Sektorial moduan eratu zen 2009an, hainbat unibertsitateen bultzadari esker. Horien helburua zen ingurumenaren kudeaketan unibertsitateek zuten esperientzia biltzea, unibertsitateko komunitateak ingurumenaren arloan egindako aurrerapenak eta arriskuen prebentzioaren arloan egindako lana jasotzea eta, aldi berean, esparru horietan lankidetzaz bultzatzea esperientziak trukatu eta jardunbide egokiak sustatzeko.

Batzorde hau 2002an Espainiako 12 unibertsitatek proposatuta eratu zen "Ingurumen Kalitatea eta Garapen Iraunkorra" lantaldeetik sortu zen, eta honako lantaldeak sortu dira:

1. Unibertsitate Iraunkortasunaren Ebaluazioa
2. Ingurumen Hobekuntzak Unibertsitateko Eraikinetan
3. Parte-hartzea eta Boluntarioritza
4. Lan Arriskuen Prebentzioa
5. Iraunkortasuna eta curriculuma
6. Unibertsitatea eta Mugikortasun Iraunkorra
7. Unibertsitate Osasuntsuak
8. Unibertsitateko Hirigintza eta Iraunkortasuna

Iraunkortasun Bulegoak aktiboki parte hartzen du honako bi talde hauetan: Unibertsitate Iraunkortasunaren Ebaluazioa eta Iraunkortasuna eta Curriculuma.

## **2.7 Garapenerako Lankidetzaren inguruko praktiken eta Gradu Amaierako Lanen (GAL) programa**

Programa honi esker hainbat titulaziotako ikasleek Latinoamerikako, Afrikako eta Asiako hainbat herrialdetako garapenerako lankidetzaz proiektuetan egin ditzakete nahitaezko praktikak edo Gradu Amaierako Lanak. Adierazleen arabera, agerikoa da Praktiken eta Gradu Amaierako Lanen Programa honek emaitza onak izan dituela parte hartu duten ikasleen sentsibilizazioari eta jarrera solidarioak sustatzeari dagokionez, eta, era berean, ikusi da UPV/EHUko ikasleek gero eta interes handiagoa dutela mota honetako praktikak egiteko.

Programa abian jarri zenetik XIII. ediziora bitartean (2015/16 ikasturtea) unibertsitateko 16 ikastegitako 929 ikaslek hartu dute parte bertan. Ikasle horiek Latinoamerikako, Afrikako eta Asiako 23 herrialdetara joan dira proiektu honetako praktikak egitera, eta hogeita hamar bat kooperazio erakundek parte hartu duten garapen proiektuak finantzatzen.

Azken edizio honetan (XIII.a) UPV/EHUko 81 ikaslek hartu dute parte. Ikasle horiek Latinoamerikako, Afrikako eta Asiako 15 herrialdetan ibili dira proiektu honen babesean praktikak edo Gradu Amaierako Lanak egiten. Sexuen arabera banaketa 5. Taulan dago zehaztuta.

**5.Taula. Praktikak eta GALak garapenerako lankidetzaz proiektuen inguruan egin dituzten ikasleen kopurua, sexuen arabera banatuta. 2015/16 ikasturtea**

	<b>Guztira</b>	<b>%</b>
Ikasleak	81	100
Emakumeak	57	70,37
Gizonak	24	29,23

### 3. GARAPENERAKO LANKIDETZA BULEGOAREN JARDUERAK

#### 3.1. Lankidetzak bultzatzeko hitzarmenak

Azken urteotan hitzarmenak sinatu dira EAEko eta kanpoko hainbat erakunde eta entitate sozialekin. Hitzarmenoi esker sendotzen joan dira unibertsitatearen eta gizartearen arteko harremanak, eta, besteak beste, zabalkunde programetan jardun dute elkarlanean eta trukeak eta lankidetzak gauzatu dituzte irakaskuntzan, prestakuntzan eta ikerketan.

2015/16 ikasturtean honako hitzarmen hauek bideratu ziren UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Bulegoan:

##### 3.1.1. Beste administrazio publiko batzuekin

- **Arabako Foru Aldundiaren** eta UPV/EHUn arteko lankidetzak hitzarmena, "Kultura arteko hezkuntza sistema elebiduna sendotzea Ekuadorren" proiektuan laguntza emateko.
- **EUSKAL FONDOA – Lankidetzarako Euskal Udal Erakundearen Elkartearen** eta UPV/EHUn arteko lankidetzak hitzarmena, praktikak eta GALak UPV/EHUn garapenerako lankidetzak proiektuetan egiteko programa bultzatzeko.

##### 3.1.2. EAEko erakunde sozialekin

Hitzarmenak egin dira EAEko hainbat **GGKEekin**, eta horien bidez Garapenerako Lankidetzaren inguruko Praktiken eta Gradu Amaierako Lanen Programa sendotu ahal izan da:

6. Taula. Praktiken eta Gradu Amaierako Lanen Programan parte hartu duten UPV/EHUko ikastegiak eta EAEko GGKEak. 2015/16 ikasturtea

UPV/EHUko IKASTEGIA	EAEko LANKIDETZA ERAKUNDEA
Gipuzkoako Ingeniaritza UE (Eibar)	ISF/MGI
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	AMASSUNU EUSKAL FONDOA-Lankidetzarako euskal udal erakundearen elkartea Getxo PRO Sahara ATFAL elkartea TAU Fundazioa (Elkartasuna eta Lankidetzak)
Arkitektura GET	EUSKAL FONDOA-Lankidetzarako euskal udal erakundearen elkartea Mugarik Gabeko Arkitektoak- Euskadi
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	EUSKAL FONDOA-Lankidetzarako euskal udal erakundearen elkartea
Psikologia Fakultatea	EUSKAL FONDOA-Lankidetzarako euskal udal erakundearen elkartea
Farmazia Fakultatea	EUSKAL FONDOA-Lankidetzarako euskal udal erakundearen elkartea

Programa horren barruan, **beste herrialde batzuetako erakundeekin** ere sinatu dira hitzarmenak. 7. Taulan daude zehaztuta.

7. Taula. Atzerriko erakundeekin hitzarmenak sinatu dituzten ikastegiak. 2015/16 ikasturtea

UPV/EHUko IKASTEGIA	ATZERRIKO LANKIDETZA ERAKUNDEA
Arkitektura GET	Entidad TECHO- Guatemala
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	Entidad TECHO- Guatemala
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	Kakani International Scout Centre- Nepal

#### 3.2. Garapenerako Unibertsitate Lankidetzako (GUL) proiektuetarako diru-laguntzak

Zuzendaritza honetatik diru-laguntzen deialdi bat kudeatzen da, urtekoa, unibertsitateko kideek garapenerako proiektuetan parte hartzea sustatzeko eta giza garapen txikiagoa duten herrialdeetako biztanleen bizi kalitatea eta bizi baldintzak hobetzen laguntzeko, bai eta kontzientzia kritikoa sortzeko eta aldaketa sozialerako ekintzekiko konpromiso solidarioa pizteko ere.

UPV/EHUK laguntzak ematen ditu garapeneraren arloko lankidetzak proiektuak finantzatzeko, zati bat edo osorik. Proiektuok honako alorretakoak izan daitezke: irakaskuntza eta prestakuntza; garapenerako ikerketa; informazioaren, ezagutzaren eta teknologiaren transferentzia; garapen bidean dauden herrialdeetako unibertsitateak sendotzea; garapenerako hezkuntza.

2015/16 ikasturtean 30.224,56 € banatu ziren guztira, eta proiektu bakoitzari gehienez 15.000 €ko diru-laguntza eman zitzaion. Diru-laguntza horiei esker lau proiektu berri jarri dira abian 2016an Nikaraguan, Dominikar Errepublikan, Brasilen eta Argentinan. 8. Taulan daude zehaztuta.

**8. Taula. Garapenerako Unibertsitate Lankidetzako proiektuei laguntzeko 2016ko deialdian onartutako proiektuak**

2016ko GUL PROIEKTUAK		
PROIEKTUAREN IZENA	ARDURADUNA	LAGUNTZA (€)
Nikaraguako landa komunitateetako familiek eraikitako biomasa sukalde hobetuen ebaluazio tekniko eta soziala.	Constanza Lobo Igartua (MGI-Mugarik Gabeko Ingeniaritza)	8.553,60
Baldintza eskasetan bizi diren komunitateak Garapen Iraunkorrerako Helburuen ezarpenean ahalduzko ikus-entzunezko erremintak. UPV/EHUren eta San Pauloko unibertsitatearen arteko lankidetzaren Sao Remo Favelaren garapen iraunkorrerako.	Irati Agirreazkuenaga Onaindia Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	10.000,00
Sierra Prietako komunitatearen garapenerako ezagupena, ahalduzkoa eta parte-hartzea sustatzeko proiektua.	Rakel Oion Encina Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	4.670,96
Alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoaren eta indarkeriaren eraginpean dauden eta gizartearen eta hezkuntzaren ikuspegitik ahulezia egoeran dauden nerabeen egoera Buenos Aireseko metropoli gunean (Argentina): irakasleentzako erremintak.	Patricia Insua Cerretani Psikologia Fakultatea	7.000,00

Gainera, 2015eko deialdian diru-laguntza jaso zuten proiektuen jarraipena egin da. Proiektuok azken fasean daude, eta 2016ko azken lauhilekoan aurkeztuko dituzte ondorioen memoriak. 9. Taulan daude deskribatuta.

**9. Taula. Garapenerako Unibertsitate Lankidetzako proiektuei diru-laguntzak emateko 2015eko deialdian onartutako proiektuak**

2015eko GUL PROIEKTUAK		
PROIEKTUAREN IZENA	ARDURADUNA	LAGUNTZA (€)
Biomimesiari buruzko azterlanetarako nazioarteko sarea, unibertsitateen artekoa eta erakundeen artekoa, sortu, garatu eta ezartzea (International University Network on Biomimicry Studies)	Unai Tamayo Orbegoza Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	14.000
El Salvadorreko Unibertsitateko Ingeniaritza Fakultatearen eta UPV/EHUren arteko unibertsitate lankidetzaren sendotzea	Aitor Gómez Arribillaga (MGI-Mugarik Gabeko Ingeniaritza)	10.000
Ekvadorreko Unibertsitate Pontifikal Katolikoko Esmeraldasko egoitzako (PUCESE) Ingurumen Kudeaketako Ingeniaritza Eskolako irakasleen eta ikasleen ingurumen diagnostikorako gaitasunak sendotzea, Esmeraldasko iparraldeko komunitateekin loturak eta ikerketa proiektuak hobetzera bideratuta. III. Fasea.	DANIEL ZUAZAGOITIA REY-BALTAR Zientzia eta Teknologia Fakultatea	6.000
Medikuntzako Gradua garatu eta ezartzea	Enrique Hilaro Rodríguez Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	10.000

### 3.3. Gizarte mugimenduekin lankidetzan jarduerak egiteko diru-laguntzak

Deialdi honen bidez ematen diren diru-laguntzak unibertsitateko kideak gizarte eraldatzeko ahaleginean gizarte mugimenduek aurkitu ohi dituzten arazo eta premietara gerturatzeko eta haietan murgiltzeko aukera ematen duten ekintzak, zati bat edo osorik, finantzatzeko dira.

Deialdiaren diru zuzkidura 7.500 €koa izan da, eta proiektu bakoitzari gehienez 7.500 € esleitu zaizkio.

### 3.4. Garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren jarduerak eta jardunaldiak

Hainbat jarduerak antolatuta dira unibertsitateko kideekin (Ilak, AZPak eta ikasleak) **zabalkunde eta sentsibilizazio** lana egiteko, Hegoaldeko egoerez nahiz gure gertueneko gizartearen dauden ezberdintasunak jabe daitezzen.

2015/16 ikasturtean **lau jardunaldi** egin dira: horietako bi garapen iraunkorraren helburu berriak aztertze hainbat eragileren ikuspegiatik; beste bat, nazioartekoa; eta, azkenik, "Garapenerako Lankidetzaren Inguruko Praktiken eta Gradu Amaierako Lanen Programari buruzko I. Topaketa", programan parte hartzen duten eragileak harremanetan jartzeari begira.

### 3.4.1. Jardunaldiak eta Topaketak

Garapen Iraunkorrerako Helburuak: politiken koherentzia eta genero ikuspegiak dituen inplikazioak  
II Jornada Iberoamericana para el diseño de medidas eficaces de control de resistencia a los antibióticos



2016ko otsailak 26

Garapen iraunkorraren helburuei buruzko jardunaldia Bizkaiko Campusean



2015eko abenduak 3

Garapenerako Lankidetzaren inguruko Praktiken eta Gradu Amaierako Lanen Programari buruzko I. Topaketa.



2015eko urriak 23

### 3.4.2. Sentsibilizazioa eta eztabaida

Beste gizarte erakunde batzuekin lankidetzan antolatutako sentsibilizazio jarduerak ondorengo taulan daude laburbilduta.

10. Taula. Sentsibilizazio jarduerak

JARDUERA	EKINTZA MOTA	LAGUNTZAILEAK
Boluntarioen eguna	elkartasun kanpaina	GIZALDE
Boluntariotza Azoka UPV/EHUko hiru campusetan	elkartasun kanpaina	EUSKADIKO GGKEen KOORDINAKUNDEA, BOLUNTA eta GIZALDE
Boluntariotza topaketa (UNIKIDE programaren barruan)	elkartasun kanpaina	BOLUNTA
Janari bilketa Bizkaiko Campusean	elkartasun kanpaina	SOTARAZI
Elkartasun Uda	elkartasun kanpaina	BOLUNTA
Elikadura subiranotasunaren astea UPV/EHUko hiru campusetan	prestakuntza ekintza	BIZILUR

Bestalde, beste urte batzuetan bezala, **Film laburren lehiaketaren III. edizioa** antolatu dute Garapenerako Lankidetzak Bulegoak eta Kultura, Communication y Desarrollo GKEak. Lehiaketa hau "Film Sozialak" Zine Ikusezinaren Nazioarteko Zinemaldian kokatzen da eta UPV/EHUko edozein ikaslek har dezake parte bertan, banaka edo taldean. 2015ean film laburren gaia izan da "Giza eskubideek ez daukate mugarik", eta UPV/EHUko 14 ikastegitako **111 ikaslek** (% 53,15 emakumeak) **aurkeztu dituzte lanak**. Berta Productions taldearen (Euskadi) *Abdullah* film laburra 1.000 €ko epaimahaiaren saria eta 500 €ko publikoaren saria irabazi ditu.

### 3.5. Asilo eskatzaileen eskubideen alde egindako jarduerak

Hainbat ekintza egin dira errefuxiatuei laguntzeko, lau ardatzen inguruan:

- Oinarrizko laguntza
- Egoera akademikoa erregularizatzeko premiei erantzutea
- Sentsibilizazioa edo eztabaida sustatzea
- Laguntza ekonomiko eta materiala.



2015/16 ikasturtean ekintza hauek garatu dira ardatz bakoitzean:

### **1. ardatza: Arlo unibertsitarioko premia bereziei erantzutea.**

Errefuxiatuak sartu dira [ikasle bisitarientzako hizkuntza ikastaroetan \(gaztelania eta euskara\)](#) . Orain arte asiloa eskatu duten eta UPV/EHUn aurrematrikula egin duten bi pertsonak egin dituzte ikastarook.

### **2. ardatza: Egoera akademikoa erregularizatzeko premiei erantzutea.**

Asilo egoeran dauden etorkizuneko ikasleei unibertsitatera sartzeko bideari edo espedientea lekualdatzeari buruzko laguntza eta informazioa ematea, gure unibertsitatean sartzen laguntzeko.

### **3. ardatza: Sentsibilizazioa eta eztabaida**


#### **Jardunaldiak eta Mintegiak**

- Ongi etorri: migratzea ez da delitua



2016ko maiatzak 11. Bizkaia Aretoa (Bilbo)

- Zer gertatzen da emakume errefuxiatuekin? Hitzaldi eztabaida
- 2016ko apirilak 19. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea (Leioa)
- Mahai ingurua: "Europa eta asilo eskubidea: historia, mugak eta babes behartutako desplazamenduen aurrean"



2016ko otsailak 16. Bizkaia Aretoa (Bilbo)

- Atzeritartasun eta asiloari buruzko politikak Europar Batasunean: nazioarteko II. konferentzia
- 2016ko otsailak 11 eta 12 . Bizkaia Aretoa (Bilbo)
- Arabako Campuseko Esperientzia Gela IV. Jardunaldiak
- 2016ko otsailak 1 eta 2. Arabako Campusa
- "Errefuxiatuei buruzko mintegia Letren Fakultatean" (Arabako Campusa).
- 2015eko azaroak 23

#### **Erakusketak**

- Errefuxiatuak Europan: liburu erakusketa Bizkaiko Campuseko Bibliotekan (Leioa)
- EhuGune: asilo eskubideari buruzko ideia jasa. Orain arte EhuGunek lau saio antolatu ditu errefuxiatuen gaiak hitz egiteko Bilboko Bizkaia Aretoan. Topaketa horien helburua da bilgune bat sortzea analisi kritikoak eta unibertsitatean aplikatu daitezkeen proposamen zehatzak aurkezteko. Bertan unibertsitateko, elkarteetako eta gizarte mugimenduetako eragileek hartzen dute parte.

### **4. ardatza: Diru-funtsa**

**Euskal Autonomia Erkidegoan dauden errefuxiatuei laguntzeko ekintzen ondorioz sortutako behar bereziei erantzuteko diru-laguntzen** deialdia. Deialdi honen bidez diru-laguntzak ematen dira, guztira **10.000 €** Euskal Autonomia Erkidegoan dauden errefuxiatuei arreta emateko ekintzak finantzatzeko, osoa edo zati bat.

Laguntza hauei esker hainbat ekintza jarri ahal izango dira abian:

#### **1. Arazoaz sentsibilizatzeko bi ekintza:**

##### **1.1. "Babes Hiria: harrera lurraldeen ahotsa. Topaketa udaletako agintariekin."**

Eztabaida mahai bat da, eta Babes Hirien Sareko agintarien ordezkariak parte hartzen dute bertan, asilo bila dabiltzan pertsonenganako elkartasuna areagotzeko Bizkaiko udalerrietan eta UPV/EHUko unibertsitate komunitatean. Errefuxiatuekiko konpromisoa hartzen da, udalerrietako eta unibertsitateko espazioak aktibatuz UPV/EHUn barruan gai honen inguruan lanean jarraitzeko.

##### **1.2. "Ongi Etorri Errefuxiatuak: Harrerarako hezten".**

Bi ekintza giltzarri aurkeztu dira: nazioarteko mintegi bat eta erakusketa ibiltari bat, bisita gidatuekin. Hauek izan dira helburuak:

- Unibertsitateko kideek hobeto ezagutzea errefuxiatuen errealitatea: haien egoera, premiak eta administrazioen erantzuna krisi humanitarioaren kudeaketari eta errefuxiatuen harrerari dagokienez.
- Biktimizazioaren kontzientzia inklusiboa sustatzea, gizartearen aldeko balioak bultzatzeko eta errefuxiatu eta asilo eskatzaileenganako ezinikusia gutxitzeko.
- Elkartasun eta justizia balioak indartzea, errefuxiatuak iristearekin ezinbestean sortuko diren aurreiritziei aurre egiteko, eta horrela arrazakeria eta xenofobia hazi ohi diren giroa eragozteko.

#### **2. Diru-laguntza ematea Ekonomia eta Enpresa Fakultateko etorkizuneko ikasle bati eta Zuzenbide Fakultateko bati, biak asilo eskatzaileak, unibertsitate ikasketetako, garraioa eta UPV/EHUn ostatu hartzeko gastuetan laguntzeko.**

11. Taula. Euskal Autonomia Erkidegoan dauden errefuxiatuei laguntzeko ekintzen ondorioz sortutako behar bereziei erantzuteko diru-laguntzen esleipena

LAGUNTZA	ONURADUNA	FINANTZIAZIOA (€)
Ikasle bat UPV/EHUn sartzea	Irina Kriukova (errusiarra)	1.500
Ikasle bat UPV/EHUn sartzea	Mahmoud Mohamad Ali (kurdo-siriarra)	4.500
'Babes-hiriak' jardunaldia	Juan Hernández Zubizarreta	2.000
ONGI ETORRI ERREFUXIATUAK: 'Harrerarako hezten' jardunaldia	Maitane Arnoso	1.760

### 3.6. Aholku teknikoa Ilei, AZPei eta ikasle elkarteei

Laguntza teknikoa eskaini da GUL proiektuak prestatu eta haien jarraipen eta ebaluaziorako metodologiarako, bai eta kanpoko diru iturriak bilatzeko ere.

12. Taula. 2015/16 ikasturtean kudeatutako proiektuen laburpen taula

DEIALDIA	PROIEKTUA	ARDURADUNA	ESLEITUTAKO LAGUNTZA (€)
FOCAD	Eredu energetiko berri baterako lankidetzaz: zor ekologikotik bizitze onerako trantsizio demokratikoa. Tradebu	Iñaki Barcena	174.845
UPV/EHUren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena	Hezkuntza sistema elebiduna indartzea Ekuadorren III	Joseba Arregi	30.000
Espainiaren eta Brasilen arteko mugikortasun programa	Brasiliako Unibertsitatea Rio de Janeiro Estatuko Unibertsitatea	Gustavo Fernandez Oscar Alvarez Gila	10.000 19.440

### 3.7. Ikasleentzat antolatutako ikastaro monografikoak

Garapenerako Lankidetzaz Bulegoak UPV/EHUko zenbait ikastegirekin, Hegoa Institutuarekin eta Euskal Herriko GGKEekin koordinatuta, garapenera eta lankidetzari buruzko 10 ikastaro monografiko antolatzen ditu urtero. Ekimen hau 2004an hasi zenetik, **86 ikastaro monografiko** egin dira UPV/EHUko hiru campusetan.

Ikastaro hauek aukera ematen diete ikasleei hainbat gai sakontzeko: ingurumen hezkuntza; elikadura segurtasuna; genero ikuspegia; parte-hartze demokratikoa; pertsonen segurtasun politikoa; garapeneraren alderdi teknologikoak; osasunaren hainbat alderdi; giza eskubideei lotutako arazoak; hazkunde ekonomiko desiragarriarako baldintzak; finantza ezegonkortasuna; eta merkatuen globalizazioa.

Ikastaro horietako bakoitzak 50 orduko iraupena duenez, graduiko ikasketetan hautazko bi kreditu ematen dira bakoitzarengatik (ikasgelako 20 ordu + 30 ordu hitzaldi eta mintegietara joanez eta lanak eginez). Ikasgelako 20 orduak era honetara banatzen dira:

- Lehen zatia, batzordeak ikastaro monografiko guztietarako zehazten duena (6 eskola ordu)
- Bigarren zatia, espezifikoa, ikastaro monografikoak oinarri duen titulazioarekin edo arloarekin lotutakoa; ikastaroaren arduradunak zehazten du (14 eskola ordu).

Horrela, edukiak egokituta egoten dira ikastaroa eskaintzen duen titulazioetara.

Parte hartzen duten irakasle gehienak UPV/EHUko irakasleak dira, eta gainerakoak UPV/EHUrekin hitzarmenak dituzten unibertsitate elkarteetako eta Euskadiko GGKEetako kideak. GGKE horietako batzuk dira Mugarik Gabeko Ekonomia-lerriak, Haurralde Fundazioa, Bidez Bide, Coopera, KCD, Medicus Mundi-Gipuzkoa eta Mugarik Gabeko Ingeniaritza (MGI).

Ikastaro monografikoa egitea ezinbestekoa da Practicum edo Gradu Amaierako Lana garapenerako lankidetzaren arloan egiteko, eta oso gomendagarria da UPV/EHUk antolatutako lankidetzaz proiektuetan boluntario aritzeko.

2015/16 ikasturtean guztira **10 ikastaro monografiko** eman dira, eta haiek finantzatzeko UPV/EHUko Ikasleen % 0,7 Elkartasun Fondeoaren laguntza izan da (UPV/EHUko ikasleek matrikularen bidez egindako ekarpenak). 10 ikastaro horietan 228 ikasle matrikulatu dira (horien % 72,36 emakumeak), eta parte hartu duten ikasleen balorazioak oso positiboak izan dira. 13. Taulan daude zehaztuta.

13. Taula. 2015/16 ikasturtean hiru campusetan egindako ikastaro monografikoak eta parte hartu duten ikasleen kopurua, sexuaren arabera banatuta

UPV/EHUko IKASTARO MONOGRAFIKOAK 2015 - 2016 IKASTURTEA			Bertaratuak		
BIZKAIKO CAMPUSA			GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Giza Garapenerako Teknologia eta Lankidetzaren Hastapenak	Bilboko Ingeniaritza Eskola	2015/10/09 2015/12/12	18	7	11
Garapenerako hezkuntza eta lankidetzak	Bilboko Irakasleen UE	2016/04/18 2016/05/04	18	11	7
Garapeneraren eta lankidetzaren gaur egungo erronkak Ekonomia Globalean	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	2016/02/12 2016/03/11	31	22	9
GIPUZKOAKO CAMPUSA					
Garapenerako lankidetzak solidarioak	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea.	2015/11/02 2015/11/12	20	19	1
Giza Garapenerako Teknologia eta Lankidetzaren Hastapenak	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	2016/02/05 2016/04/08	28	20	8
Hezkuntza eta lankidetzak garapenean	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	2016/03/02 2016/03/18	25	18	7
Ekonomia Justua Eraikitzen	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	2015/11/05 2015/12/10	15	11	4
Lankidetzak eta Arkitektura	Arkitektura Goi Eskola Teknikoa	2016/04/07 2016/04/29	48	41	7
ARABAKO CAMPUSA					
Garapena eta Lankidetzak Solidarioak	Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	2015/09/28 2015/11/23	16	11	5
Garapenerako lankidetzak solidarioak	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	2016/04/25 2016/05/18	9	5	4
<b>GUZTIRA</b>			<b>228</b>	<b>165</b>	<b>63</b>

### 3.8. Garapenerako Lankidetzaren inguruko unibertsitate praktikak eta Gradu Amaierako Lanak (GAL)

Programa honen bidez ikasleek aukera dute nahitazeko praktikak eta Gradu Amaierako Lanak garapen bidean dauden herrialdeetan lankidetzak erakundeek dituzten proiektuetan egiteko. Era horretara, beren prestakuntza akademiko-praktikoa osatzen dute esperientzia horren bidez.

Unibertsitatearen eginkizuna da munduan dauden ezberdintasunez jabetzen diren profesionalak sortzea, gai izango direnak gizartearen aurrerabidean eragina daukaten arazoei buruzko eztabaidetan parte hartzeko. Bestalde, UPV/EHUk instituzionalizatu egiten du halako praktiken eskaintza, eta bermatzen du praktikok jarraipena izatea eta ikasleen hezkuntzan eragina izatea.

Programak honako **printzipioak** ditu oinarri:

- Garapenerako proiektuetan egiten diren praktikek prestakuntzari egiten dioten ekarpen handia aitortzen du: ikasleak hobetu egiten du prestakuntza akademikoa eta profesionala, prestakuntza osatzen laguntzen dioten eta gaitasun berriak garatzeko aukerak ematen dizkioten esperientzietan parte hartuz.
- Ikaslea garapenerako lankidetzaren arloan oso motibatuta egotea eskatzen du.
- UPV/EHUren eta garapenerako lankidetzak erakundeen arteko elkarlana bultzatzen du.

Programa honek diru-laguntzen funts bat dauka ikasleei bidaia gastuak eta aseguruak ordaintzen laguntzeko. Laguntza **750 eurokoa da ikasle bakoitzeko**. Diru funts hori EUSKAL FONDOAREN ekarpenekin eta UPV/EHUko ikasleen % 0,7 Elkartasun Fondoko ekarpenekin (hau da, ikasleek matrikularen bidez egiten dituzten ekarpenekin) osatuta dago.

Horren guztiaren bidez, **bi motatako** jarduerak bultzatzen dira:

- **Garapenerako lankidetzaren inguruko unibertsitate praktikak garatzeko bidean dauden herrialdeetan.** Praktika hauen helburuak dira ikasleek euren prestakuntza akademikoan jasotako elementu teoriko eta praktikoa bateratzea eta errealitate soziala ebaluatu eta gizarte aldatzeko estrategiak planifikatzeko duten gaitasuna indartzea, eta, aldi berean, euren prestakuntzak ematen dizkien funtzio profesionaletatik gizarte arazoaren prebentzio, murrizketa edo konponbideari heltzea.
- **Gradu Amaierako Lanak garapeneraren eta/edo lankidetzaren arloan egitea.** Proiektu hauen helburua da UPV/EHUko unibertsitate eskola eta fakultateko ikasleek Graduan jasotako ezagutzak GGKEek eta lankidetzak-erakundeek planteatutako "arazo teknikoak" konpontzeko erabiltzea, era honetako GALak eginez: teknologia egokien prototipoak; giza garapenerako teknologiei buruzko azterketak; garapenerako lankidetzak edo laguntza humanitarioaren alorreko programa eta proiektuetan integratutako proiektuak.

Hauk dira **programan parte hartzen duten eragileak**:

- GGKEak: unibertsitateko ikasleak hartuko dituzten garapenerako lankidetzak proiektuak prestatzen dituzte.
- Unibertsitateko ikastegiak: ikasketa programetan GGKEek kasuan kasuko lekuan dauzkaten lankidetzak proiektuen baitan egingo diren nahitazeko praktikak edo Gradu Amaierako Lanak jasotzen dituzte.
- Ikasleak: beren prestakuntza profesionalaren zati bat eskuratzen dute curriculumeneko praktikak edo Gradu Amaierako Lana garapenerako lankidetzak proiektu batean eginez.

- Finantzatzaileak, adibidez Euskal Fondoa (lankidetzarako euskal udal erakundeen elkartea), Bilbo, Gasteiz eta Donostiako udalen ekarpenen bitartez –besteak beste–, diru-laguntzak ematen dituen ikasleen bidaia gastuen zati bat ordaintzeko.
- UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzeta Bulegoa: aldean arteko bitartekaria da, eta berak egiten ditu programak aurrera jarraitzeko egin behar diren zeregin osagarri guztiak (kudeaketa, prestakuntza eta ebaluazioa).

### 3.8.1. Programaren faseak eta ekintzak

Jarraian daude deskribatuta Unibertsitateko praktiketarako eta GALetarako faseak, jarduerak, xedeak eta egutegia.

**14. Taula. Unibertsitateko praktiketarako eta GALetarako ezarritako faseak, jarduerak, xedeak eta egutegia**

FASEAK	JARDUERAK	XEDEAK	EGUTEGIA
<b>Ikasleen eta lankidetzeta erakundeen arteko lehengo harremana</b>	— Ikastegi bakoitzean programaren berri ematea. — Lankidetzeta erakundeak aurkeztea ikastegietan.	Programan parte hartu nahi duten ikasleak eta lankidetzeta erakundeak identifikatzea	apirila
<b>Praktikak eta Gradu Amaierako Lanak egiteko laguntzen deialdia</b>	— Deialdiaren berri ematea eta ebazpena — Ikastegi bakoitzak hitzarmena egitea lankidetzeta erakunde bakoitzarekin — Programaren Jarraipen Batzordea eratzea ikastegi bakoitzarekin.	Diru-laguntzak esleitzea, irizpide objektiboen arabera	maiatza eta ekaina
<b>Ikasleen lankidetzeta eta prestakuntza lankidetzeta-erakundeetan</b>	— Tutoreak eta begiraleak izendatzea. — Praktika plana eta “lankidetzeta eta prestakuntza” plana prestatzea erakundeekin. — Lankidetzeta eta prestakuntza planean adostutako jarduerak burutzea (Jarduera horietako batzuk ikastaro monografikoak dira). — Lankidetzeta erakundeak ikaslearen ebaluazio txostena egitea.	Praktiketarako eta GALa egiteko ikasle egokiak hautatzea	urritik hasita eta kasuan kasuko herrialdera Joan arte
<b>Praktikak eta GALa egitea, eta haien jarraipena eta ebaluazioa egitea</b>	— Ikasleek praktikak egitea garapen bidean dauden herrialdeetan. — “Erakunde begiraleak” jarraipena egitea praktikei, eta adostutako txostenak bidaltzea. — Inplikaturako eragileek praktiken ebaluazioa egitea.	Praktikak eta GALa egitea eta ondo ateratzen direla bermatzea	urtarriletik irailera

### 3.8.2. Programan parte hartzen duten giza baliabideak

Garapenerako Lankidetzeta Bulegoak egiten ditu programak ongi funtzionatzeko egin behar diren administrazio, koordinazio eta jarraipen lan guztiak, besteak beste, GGKEekin hitzarmenak tramitatzea edo urteko txostenak aurkeztea ikastegi bakoitzeko Practicumaren eta gradu amaierako proiektuen arduradunei. (<http://www.unibertsitate-hedakuntza.ehu.es/p268-shocdhm/es/>).


Ikastegi bakoitzeko Practicumaren eta Gradu Amaierako Lanen arduradunak GGKEekin eta irakasleekin elkartzen dira, lekuetara bertara joaten dira (ikasturte bakoitzean bi gutxienez) tokian tokiko kideak ezagutzera eta praktiketan dauden ikasleei jarraipena egitera, eta programaren emaitzen ebaluazioa egiten dute urtero.

- **Ikastaro monografikoak:** Ikastaro monografiko bat emateko ikastegiko irakasle eta ikertzaile batek esku hartu behar du gutxienez. Ikastaro monografikoen batzordea osatzen dute UPV/EHUko Gizarte Erantzukizuneko zuzendariak, Garapenerako Lankidetzeta Bulegoko teknikariak eta Hegoako ordezkari batek. Batzorde honek ezartzen ditu monografikoak diseinatzeko arauak eta monografikoen gutxienerako edukia, eta ikastaroen ebaluazioa eta hobekuntzarako proposamenak egiten ditu urtero. Diseinuan honako hauek ere esku hartzen dute:
  - Unibertsitateko ikasleen elkarteek, hala nola, ISF/IMGk eta Bionaturek ([http://www.unibertsitate-hedakuntza.ehu.es/p268-rsct/es/contenidos/informacion/rs\\_ong/es\\_ong/ong.html](http://www.unibertsitate-hedakuntza.ehu.es/p268-rsct/es/contenidos/informacion/rs_ong/es_ong/ong.html))
  - Administrazio publikoek
  - UPV/EHUz kanpoko GGKEek
- Ikasleek garapenerako honako lankidetzeta proiektuetan egiten dituzte beren praktikak: Ekuadorreko proiektua, Hezkuntza eta Filosofia Zientzien Fakultateko irakasleekin eta Irakasle Eskoletako irakasleekin; eta Arkitektura Goi Eskola Teknikoaren proiektua. UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileek eta AZPko langileek parte hartzen dute.

### 3.8.3. Programaren emaitzarik adierazgarrienak

Abian jarri zenetik XIII. ediziora bitartean (2015/16 ikasturtea) unibertsitateko **16 ikastegitako 929 ikaslek** hartu dute parte programan. Ikasleok **Latinoamerikako, Afrikako eta Asiako 23 herrialde**tar joan dira proiektu honetako praktikak egitera, eta hogeita hamar bat lankidetzeta erakundeek parte hartu duten garapen proiektuak finantzatzen.

XIII. edizioan (2015/16) UPV/EHUko 81 ikaslek hartu dute parte programan. Ikasleok Latinoamerikako, Afrikako eta Asiako 15 herrialde-tara joan dira praktikak edo Gradu Amaierako Lanak garapenerako lankidetzeta proiektuetan egitera.



**Irudia. Praktikak eta GALa garapenerako lankidetzta proiektuetan egiteko programako ikasleak hartu dituzten herrialdeen banaketa 2015-2016 ikasturtean**

15. eta 16. Tauletan sexuaren, campusaren eta ikastegiaren arabera daude banatuta ikasleak. Azpimarratzekoa da programan parte hartzen duten ikasle guztien % 70,37 emakumeak direla.

**15. Taula. Praktikak eta GALa garapenerako lankidetzta proiektuetan egiteko programan parte hartu duten ikasleak sexuaren arabera. 2015/16 ikasturtea**

	2015-2016	%
Ikasleak	81	% 100
Emakumeak	57	% 70,37
Gizonak	24	% 29,63

**16. Taula. Ikasleen banaketa jatorriko campusaren eta ikastegiaren arabera (2015/16 ikasturtea)**

IKASTEGIA	IKASLEAK	LANKIDETZA ERAKUNDEA	Herrialdea
<b>ARABAKO CAMPUSA</b>			
Hezkuntza eta Kirola	4	Euskal Fondoa (4)	Guatemala (4)
Gizarte Langintza	7	PIES por la Tierra (2) NTD Ingredientes (2) CODEINFA(2) ADSIS (1)	Argentina (2) Dominikar Errep. (2) Txile (2) Peru (1)
Farmazia	1	PUCESE (1)	Ekuador (1)
<b>BIZKAIKO CAMPUSA</b>			
Irakasleen Eskola	3	UNMS-Saharako Emakumeak Mahatma Gandhi Fundazioa(2)	Sahara (1) Dominikar Errep. (2)
Ingeniaritza GET	5	Zabalketa Lankidetzarako Elkartea ISF/MGI Mozambique Sur Fundazioa	Bolivia (2) EL Salvador (2) Mozambique (1)
IITUE	1	ISF/MGI	EL Salvador (1)
Gizarte eta Komunikazio Zientziak	4	Euskal Fondoa (4)	EL Salvador (3) Guatemala (1)
Zientzia eta Teknologia	2	ISF/MGI	Argentina (2)

GIPUZKOAKO CAMPUSA			
Erizaintza	2	Medicus Mundi (2)	Peru (2)
Filosofia eta Hezkuntza Zientziak	18	Haurralde (9) Bidez Bide (1) Bakea eta Duintasuna (1) AMS (2) UNAD (1) TAU Fundazioa (2) Getxo Pro-Sahara ATFAL elk.(2)	Bolivia (4) Peru (6) Argentina (2) Kolonbia (2) Nikaragua (2) Sahara (2)
Psikologia	15	Haurralde (14) Euskal Fundoa (1)	Bolivia (6) Peru (4) Nikaragua (1) Puerto Rico (3) EL Salvador (1)
Irakasleen Eskola	10	Haurralde (8) Etiopia Utopia Fundazioa Tikal (2)	Dominikar Errep. (3) Peru (3) Nikaragua (2) Etiopia (2)
Arkitektura	5	Euskal Fundoa (5)	Nikaragua (2) EL Salvador (3)
Enpresa	1	Kakani International Scout Centre	Nepal (1)
Politeknikoa	1	Euskal Fundoa (1)	Nikaragua (1)
IITUE- Eibar	2	ISF/MGI (1) Mozambique Sur Fundazioa (1)	Nikaragua (1) Mozambique (1)
<b>GUZTIRA</b>	<b>81</b>		

#### 3.8.4. Programa indartuko duten lankidetzak formula berriak

##### “Gaztenpatia” proiektua

Proiektu hau Euskal Fondoarekin lankidetzan jarri da abian 2015/16 ikasturtean. UPV/EHUren eta Euskal Fondoaren arteko hamar urtetik gorako elkarlanaren emaitza da, eta Unibertsitateak ezberdintasunen kontzientzia daukaten eta gizartearen aurrerapenean eragina duten arazoengatik inguruko eztabaidetan parte hartzeko gai diren profesionalak prestatzeko duen eginkizunean oinarritzen da.

Programak honako **printzipioak** ditu oinarri:

- **Prestakuntza:** Ikasleak euren prestakuntza akademikoa eta profesionala hobetzen dute, gauza berriak ikasteko eta trebetasun berriak garatzeko aukera ematen dieten esperientzien bidez.
- **Enpatia:** Lankidetzarako motibazio handia eskatzen du. Zailtasun handiak eta baliabide eskasak dituzten gizarteekin lankidetzan jarduteko gogoak handiagoa izan behar du praktika interesgarriak edo zirrargarriak egiteko gogoak baino.
- **Gaztetasuna:** Ikasleek proiektu bakoitzarekin zerikusia duten herrialdeetako gazteekin batera hartzen dute parte proiektuko ekintzetan.
- **Komunikazioa:** Funtsezkoa da proiektu honen berri ematea eta proiektua ikusaraztea. Bai [www.ehu.eus](http://www.ehu.eus) webgunean bai [www.euskalfondoa.org](http://www.euskalfondoa.org) webgunean Gaztenpatia mikrogune bat jartzen da sare sozialetako estekekin. Ikus-entzunezkoen munduak berebiziko garrantzia izango du Gaztenpatian, eta Ikaika Media, UPV/EHU Garapenerako Lankidetzak Bulegoa eta proiektuan parte hartzen duten ikasleak arduratuko dira komunikazio hori “bizirik” mantentzeaz.

2015/16 ikasturte honetan UPV/EHUko **5 ikastegitako 15 ikasle (6 emakume eta 9 gizon)** joan dira praktikak edo GALa garapenerako lankidetzak proiektuetan egitera [Euskal Fondoak](#) lan egiten duen hiru herrialdeetara: Guatemala, El Salvador eta Nikaragua. 17. Taulan jaso da horien banaketa herrialdearen eta ikastegiaren arabera.

17. Taula. Gaztenpatian parte hartu duten ikasleak, ikastegiaren eta herrialdearen arabera. 2015/16 ikasturtea

HERRIALDEA	JATORRIZKO IKASTEGIA	IKASLEAK, GUZTIRA
Gaztenpatia Suchitoto: El Salvador. Generoa	Psikologia F. Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	1 3
Gaztenpatia Morazán (Segundo Montes Unibertsitatea) El Salvador. Arkitektura	Arkitektura GET	3
Gaztenpatia Alta Vera Paz —Guatemala—: Kirola - Nutrizioa	Hezkuntza eta Kirola F. Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	4 1
Gaztenpatia San Carlos Nikaragua: Ingeniaritza eta ura.	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola Arkitektura GET	1 2
<b>GUZTIRA</b>		<b>15</b>

Gainera, esperientzia honen testuinguruan hiru irakasle (bi gizonezko eta emakumezko bat) El Salvadorra, Guatemalara eta Nikaraguara joan dira tutoretza lana egitera eta ikaskuntza komunitateekin (Colectiva feminista de desarrollo local de Suchitoto – El Salvador; Inicial civil por la democracia INCIDE Alta Vera Paz – Guatemala; Asociación para el fomento del Desarrollo local eco-sostenible del Río San Juan (ASODELCO) San Carlos – Nikaragua; Instituto tecnológico Meanguera de Morazán –El Salvador–) harremanak estutzera.

### 3.8.5. Programaren amaierako balorazioak

Programa curriculumean iraunkortasuna txertatzeko tresna indartsua da. Lehendabizi, programa ezarri zenetik pasatu diren 12 ikasturteak aztertuta, egiaztatu ahal izan dugu programak aldatu egiten dituela parte-hartzaileen jarrerak. Gainera, titulazioen kompetentzia orokorretan deskribatzen diren gaitasunak garatzen ditu ikasleengan, ikasgelan nekez lortuko lituzketenak, hala nola egokitzeko gaitasuna eta arazo jakin batzuei aurre egiteko ahalmena. Alde horretatik, programak ematen dituen bizipenak aberasgarriak dira bai ikasleentzat bai irakasleentzat maila profesionalean zein pertsonalean. Bizitza, ekoizpen, kontsumo eta iraunkortasun ereduak jarrera kritikoaz aztertzeko kezka ildotik, programak laguntzen du hainbat gauzarekin zalantza egiten, parte-hartzaileek azaldu dutenez.

Erakundeei dagokienez, programari esker hezkuntza erakundeek konpromisoa hartzen dute gizartearekin.

Programa hauek arrakasta izan dezaten, alde guztien inplikazio handia behar dute: goi mailako hezkuntza erakundeena, bertako irakasleena, erakunde sozialena eta programak gauzatu eta garatzeko baliabideak eman ditzaketen erakunde publikoena.

## 4. JARDUERA SOLIDARIOAK ETA GIZARTE ERAKUNDEAK

UPV/EHUK badaki zein den bere zeregina profesional handien prestatzaile gisa; hala ere, uste dugu pertsonak prestatzeko erantzukizuna ere badugula: **balioetan hezte**a gure erantzukizuna da. Hori dela eta, uste dugu funtsezkoa dela unibertsitatearen eguneroko jardunean talde lana egitera eta hainbat balio, besteak beste, elkartasuna, berdintasuna eta gizarte justizia praktikan jartzeaz hausnartzera behartuko gaituzten jarduerak aurreikustea.

Zentzu horretan, ikasturte akademiko honetan honako lan lerro hauek sustatzen jarraitzen dugu:

### 4.1. Hautazko kredituak aitortzea elkartasun eta lankidetzak jarduerak egiteagatik

UPV/EHUK 2012ko maiatzean onartu zuen "[Graduko Ikasketetan Kredituak Transferitu eta Onartzeko Arautegia](#)". Eta 11. artikuluan ezartzen du UPV/EHUn matrikulatutako ikasleek elkartasuneko eta lankidetzako jardueretan aritzeagatik kredituak aitortzea eskatu ahal izango dutela, eta unibertsitatean dauden bitartean **gehienez ere** ikasketa planeko **6 kreditu** lortu ahal izango dituztela, **ikasturte bakoitzean gehienez ere 3**, eta jardun horretan emandako 30 orduko kreditu bat aitortuko zaiela. Bestalde, ezartzen da kredituak aitortzeko beharrezkoa izango dela boluntarioratza jarduerak Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzak babestutakoak izatea.

Garapenerako Lankidetzak Bulegoa arduratzen da elkartasun jarduerak egiten dituzten ikasleen jarraipena egiteaz, eta boluntarioratza agentziekin batera (Bolunta do Giralde) antolatzen du ikasleek alde aurretik jasotzen duten prestakuntza, harremanak dituzten erakundeekin edo GGKEekin eta kredituak aitortzeko ziurtagiria ematen du.

Jarduera horren esparruan, 2015/16 ikasturtean UPV/EHUK [beste zazpi hitzarmen](#) sinatu ditu honako erakunde hauekin:

- GIZALDE
- SOS RACISMO Gipuzkoa
- KAEBNAI
- AEMAR
- AVIFES
- Arabako Gurutze Gorria
- Save the children

Une hauetan, eta hautazko kredituak aitortzeko, UPV/EHUK [42 hitzarmen](#) ditu hainbat erakunde eta elkarterekin.

2015/16 ikasturtean guztira **672 kreditu** aitortu zaizkie **257 ikasleri**. Horietatik UPV/EHUKo ikastegietako ikasleak izan dira 196 emakumezko eta 61 gizonezko.

### 4.2. Kredituak aitortzea jarduera osagarriak egiteagatik

UPV/EHUK 2015ean onartu zuen hautazko kredituak lortzeko balio duen "[Hiri ortu ekologikoak](#)" ikastaroan parte hartzeari buruzko araudia. Jarduera honetan parte hartzeagatik kreditu 1 emango da 25 orduko.

2014/15 ikasturtean 15 kreditu aitortu zitzaizkien 15 ikasleri (9 gizonezkoak eta 6 emakumezkoak).

2015/16 ikasturtean **26 kreditu** aitortu zaizkie **26 ikasleri** (17 gizonezkoak eta 9 emakumezkoak).

### 4.3. Medikuntzako ikasleen boluntarioratza programa autokudeatua

"[Autokudeatutako](#)" jarduerak dira ikasleek sustatutako boluntarioratza ekintzak, eta unibertsitateko boluntarioratza egitura sendotzen dute eta koordinazio tresna berriak sortzea bultzatzen dute.

Jarduera hauek elkartasuneko eta lankidetzako ekintzengatik ematen diren hautazko kredituekin aitortzen dira, lehenengo aldiz 2013/14 ikasturtean antolatu ziren eta orain arte 120 ikaslek hartu dute parte.

Aurreko ikasturtean bezala, **Bilboko Irakasleen Eskolak** prestakuntza osagarria eskatu zuen bertako ikasleentzat lehen laguntza-aren esparruan, hezitzaile sozialak izango direnek ikasgeletan edo bere lana egingo duten erakundeetan **sortu ahal izango diren arazoei aurre egin ahal izateko baliabideak** izateko.

**Medikuntza Fakultateko** ikasle talde bat arduratu zen, borondatez eta elkartasunez, jardunaldiaren programa eta garapena zehazteaz, honako gai hauen inguruan:

- Bihotz-biriketako bizkortzea (BBB)
- Haurren istripuzko intoxikazioak
- Zauriak, erredurak, kolpeak
- Paziente larriari arreta
- Eztarriko trabamenduak, konbultsioak eta sinkopeak

Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaritzak lagunduta antolatu ziren **Lehen Laguntzako Jardunaldiak urriaren 6an eta martxoaren 8an**, eta bakoitzak 3 orduko iraupena izan zuen.

**Jardunaldietan Bilboko Irakasleen Eskolako 41 ikaslek parte hartu zuten (% 94 emakumeak).**

Parte hartu zuten **ikasleen balorazioa** inkesta bidez jaso zen, eta jasotako prestakuntza egokia izan zela adierazten du. Bestalde, hizlari gisa parte hartu zuten boluntarioek adierazi zuten jarduera aberasgarria izan zela pertsona gisa hezteko eta medikuntzako profesional gisa prestatzeko, eta "oso balorazio ona" egin zuten.

#### 4.4. Boluntariorzaren II. azoka

2015eko apirilaren 20an egin zen **Boluntariorzaren II. Azoka** UPV/EHUko hiru campusetan (Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako), eta **80 erakundetik** gora izan ziren bertan.

Azoka antolatzeko helburua da gizarte erakundearen eta unibertsitateko ikaslearen arteko topagunea izatea, ikasleak esparru horretan sentsibilizatzeko eta, aldi berean, informazioa eta prestakuntza emateko.

Boluntariorzaren II. Azoka hori UPV/EHUk eta Bolunta, Gizalde eta Sartu Araba erakundeek antolatu zuten, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen eta UPV/EHUko Ikasle Kontseiluaren laguntzaz.

Honakoak izan ziren helburuak:

- Unibertsitateko kideen artean parte-hartze soziala sustatzea.
- Gizarte erakundeek gure inguruan egiten duten lana ezagutaraztea eta ikusaraztea.
- Boluntarioek egiten duten lana aitortzen laguntzea.
- Boluntariorza solidarioari lotutako balioak hedatzea (konpromisoa, gizarte erantzukizuna, elkartasuna...).

Erakundearen standak Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko karrerapean (Bizkaiko Campusa), Ignacio Maria Barriola Zentroan (Gipuzkoako Campusa) eta Lascares Ikerketa Zentroan (Arabako Campusa) jarri ziren.

UPV/EHUrentzat funtsezkoa da gizartearen eta boluntariorzaren esparruko erakundeak hiru campusetan egotea unibertsitatearen gizarte konpromisoari begira.



18. Taula. Boluntariotzaren II. Azokan parte hartu zuten erakundeak

BIZKAIKO CAMPUSA	GIPUZKOAKO CAMPUSA	ARABAKO CAMPUSA
ACOMPAÑA - LAGUNTZEN ADEMBI Nazioarteko Amnistia ANESVAD APRENDETEA ARTE BIZI ELKARTEA Bakerako Lankidetzaz Batzarrea ASEBI - FEDER Minbiziaren aurkako elkarteak Loizaga kultur elkarteak AEGEE gazte elkarteak Luisa de Marilla elkarteak Besarkatuz-Asociación Posada de los abrazos AVIFES Ayuda en acción-Ekintzaz Lagunduz BIDESARI CARITAS ZIBERBOLUNTARIOAK Ikasle Kontseilua (Ekonomia eta Enpresa Fakultatea) DISLEBI DYA EISE LEIOA Elizalde eskaut taldea Emaus Fundazio Soziala Euskal interkultura Euskalherriko eskautak Claret sozial fondoak FUNDAZIOA EDE Fundazioa (Aisialdi Eskola) Ellacuria Fundazioa Etorikintza Fundazioa Juan Ciudad Fundazioa (San Juan de Dios Ospitalea) Euskadiko Down Sindromea Fundazioa Vicente Ferrer Fundazioa FUTUBIDE GORABIDE San Juan de Dios Ospitalea IC-LI ISF. Mugarik Gabeko Ingeniaritza INTERED JOLAS ETA EKIN KALE DOR KAVIKO OIKOCREDIT ONCE Fundazioa RECICLANET SUNU BUGA BUGA Gambian hazten Itxaropenaren telefonoa ULERTUZ UNRWA EUSKADI	AFAGI AGE Alaitasuna elkarteak ALBOAN SPAPG. Gipuzkoako Animaliak eta Landareak Babesteko Elkarteak ATZEGI BEGISARE DYA Goyeneche Fundazioa PROVIDE-PROEGA Fundazioa GEHITU KEF/FGDA. Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa/Federación Guipuzcoana de deporte adaptado GREENPEACE Gurutze gorria / Cruz roja Haurralde Hazi eta ikasi Hezkide eskola / GIZALDE ISF. Mugarik Gabeko Ingeniaritza INTER RED JATORKIN KAEBNAI-EUROPE DIRECT SS KAMELAMOS NAGUSILAN SOS Arrazakeria / SOS Racismo WHY NOT	AECC. Minbiziaren Aurkako Arabako Elkarteak AFAARABA. Alzheimerra edo beste dementsia bat duten pertsonen senitarteko eta adiskideen Arabako elkarteak AGLE. Arabako Gizarte Laneko Elkarteak ARESBI. ARABAKO Arantzaz Bifido Elkarteak ASAJER. Errehabilitazioan diren Arabako Jokalarien Elkarteak ASASAM. Buruko gaixotasuna duten pertsonen senitartekoen eta adiskideen Arabako elkarteak APDEMA. Adimen ezintasuna duten pertsonen aldeko Arabako elkarteak KOLONBIA-EUSKADI ELKARTEA ITXAROPENA ELKARTEA. Ikusmen Urriko Pertsonen Arabako Elkarteak ASPASOR. Arabako gorren gurasoen eta lagunen elkarteak GURUTZE GORRIA FEDER. Gaixotasun arraroen Espainiako Federazioa-Euskadi FEVAPAS. Gorren gurasoen eta lagunen elkarteen euskal federazioa MEDICUS MUNDI ÁLAVA/ARABA SARTU ÁRABA SECOT Áraba. Enpresa Aholkularitzako boluntariotza seniorra SIDÁLAVA. Arabako hiesaren aurkako herritarren batzordea

Standez gainera, hainbat jarduera prestatu zituzten erakundeek. **Apirilaren 25etik 29ra bitarteko astean** hainbat jarduera egin ziren unibertsitateko hainbat gunetan, besteak beste, erakundeak lantzen ari diren gai zehatzei buruzko hitzaldiak eta tailerrak.

- BBB, DYA-Laguntza humanitarioko eta gizarte laneko elkarteak;
- Bidezko merkataritzako produktuen erakusketa, *Intermon Oxfam*-Pobreziaren aurkako elkarteak;
- Jolas kooperatiboak, Interred-hezkuntza inklusiboak sustatzeko GGREak;
- Argazki-erakusketa, Atzegi-Adimen urritasuna duten pertsonen aldeko elkarteak;
- Liburuak oparitzea, Kaleko-Elkartasuna eta Kultura Elkarteak;
- Bidezko merkataritzako kafe eta gailuak dastaketa, Gizalde-Gipuzkoako Boluntarioen Elkarteak.

Ikasleei eta boluntario elkarteetara egindako inkestaren bidez jasotako erantzunen arabera, balorazioa "oso ona" izan da.

## 4.5. Lankidetza hitzarmenak gizarte erakundeekin

Gure inguruko gizarte erakundeekin egindako lanari esker hurbiltzen dugu giza garapen iraunkorra unibertsitatera. Alde horretatik, honako jarduerak hauek egin dira:

### 4.5.1. Unikide Programa - UPV/EHU

Unikide programa 2012an sortu zen Bizkaiko Bolunta-Boluntariotzaren eta Gizarte Partaidetzaren Agentziak (<http://www.bolunta.org/unikide/>) eta UPV/EHUko Gizarte Erantzukizunaren eta Proiektzio Unibertsitarioaren Errektoreordetzak sustatuta. Hitzarmen honen helburua da UPV/EHUko parte-hartze soziala sustatzea Bizkaiko Campusean, eta horrek ekarri du UPV/EHUko **Bizkaiko Campuseko ikastegietan elkarleen eta boluntariotzaren egitura indartzeko plan bateratu** bat sortzea.

### 4.5.2. Gizalde Programa - UPV/EHU

UPV/EHUK lankidetza-programa bat ezarri zuen 2016an Gipuzkoako Gizalde-Boluntariotzaren eta Gizarte Partaidetzaren Agentziarekin (<http://www.gizalde.com/>) elkarlanean **sentsibilizazio-ekintzak** egiteko Gipuzkoako Campuseko ikastegietan. Ekintzen helburua da parte-hartzearen eta elkartasunaren kultura eta balioak aldarrikatu eta hedatzea eta boluntariotza sustatzeko zerbitzu iraunkorra eskaintzea.

Honakoak dira UNIKIDE eta Gizalde programen jarduera lerro bateratuak:

- Informazioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa
- Ekintza boluntarioen sustapena
- UPV/EHUren eta gizarte erakundeen arteko lankidetza
- Baliabide teknikoak uztea

## 4.6. Jardunbide egoki iraunkorrak

### 4.6.1. Mugikortasunaren astea

UPV/EHUK hainbat ekintza antolatzen ditu autoaren erabilera konbentzionalaren alternatibak ikusarazteko Mugikortasunaren Europako Astearen barruan, **irailaren 16tik 22ra bitartean**.

**Edizio honetan "Aukeratu. Aldatu. Konbinatu. Zure mugikortasuna"** lelopean hainbat jarduera antolatu dira hiru Campusetan hezkuntza komunitatea sentsibilizatzeko. Besteak beste antolatu dira bizikleta martxak, auto elektrikoaren erakusketak, kale antzerkia eta garraiobide ezberdinen arteko lasterketak. Edizio honetan, berritasun bezala, abiarazteko neurriak neurri iraunkorretan eta aldi baterako neurrietan banatu dira.

UPV/EHUK gauzatutako neurri iraunkorretako batzuk dira:

- **VAO 3+:** 3 pertsonak edo gehiagok partekatutako autoei lehentasuna ematen dien aparkalekua Bizkaiko Campusean (Sarriko eta Leioa-Erandio gunea). Ikastegietatik hurbil dagoen aparkalekua da, eta 3 pertsonak edo gehiagok partekatzen dituzten autoek bakarrik erabil dezakete. Helburua: autoa partekatzera bultzatzea
- **Bizikletentzako aparkalekuak jartzea** 3 campusetan, bizikleta erabiltzea bultzatzeko
- **Aparka:** Bizikletentzako aparkaleku babestua eta sare elektrikora konektatua. Bizkaiko Campusean (Leioa-Erandio gunea). Aparkaleku estaliak aukera ematen du bizikletak seguru gordetzeko eta bizikleta elektrikoak kargatzeko
- **Autoa partekatzeko online plataforma:** Autoa partekatu nahi duen inguruko jendea ezagutzeko aukera ematen du.

Aldi baterako neurrietako batzuk dira:

- Mugikortasunaren gaiaren inguruko **argazki rallya**, UPV/EHUko kideentzat Donostian.
- **Garraiobideen lasterketa** Bilboko kaleetan zehar garraiobide ezberdinetan. Ikasleek ibilbide bera egin behar dute, denbora, dirua eta energia aurrezteko aukerarik onena zein den ikusteko. Auto pribatuak ez diren bestelako garraiobideak, eta intermodalitatearen abantailak ikusaraztea helburutzat hartuta.
- **5 kilometroko martxa bizikleta elektrikoan**, Getxotik Bizkaiko Campuseko Biblioteka Nagusira arte, bizikleta erabiltzeaz sentsibilizatzeko.
- **Kale antzerkia:** Antzerki talde batek Bizkaiko-Leioako campusean hainbat emanaldi eskaintzen ditu garraio iraunkorraz gogoeta eginarazteko.
- **Auto elektriko eta iraunkorren erakusketa:** Unibertsitateko hainbat ikastegitan unibertsitateko kideak horien abantailez jabetu daitezten

Jardunbide egokien helburua da "Aukeratu, Aldatu, Konbinatu, Zure mugikortasuna" lelopean antolatutako Mugikortasunaren Europako Astea kanpainak eta Autorik gabeko Europako Egunak ematen duten bultzada aprobetxatzea hirietako mugikortasun arazoei konponbideak emango dizkieten proiektu errealek babestu eta bultzatzeko.

Unibertsitateak gauzatutako Jardunbide Egokiek [Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren](#) errekonozimendua jaso dute.

#### 4.6.2. Hozkailu solidarioa

UPV/EHUK eta Galdakaoko Ostalaritza Eskolak eta Boluntarioen Elkarte Humanitarioak elkarlanean dihardute 2015/16 ikasturtean Bizkaiko Campusean janaria alferrik ez galtzeko abian jarritako "[hozkailu solidarioa](#)" izeneko ekimenean.

Ekimen honekin saihestu nahi da janaria alferrik galtzea eta Ostalaritza Eskolan soberan geratzen den janaria produktu solidarioa, aprobetxatzeko modukoa eta autokudeatua bihurtzea. Egunean kontsumitu gabe geratu den janaria antolatu eta ontziratu egiten dute ikasleek, iraungitze-data jarrita, 15:00etatik aurrera, jantoki zerbitzua amaitzen denean.

Janaria eskuratu dezakete UPV/EHUko kideek nahiz Ostalaritza Eskolako harrera hurbiltzen den beste edonork. 8:00etatik 20:00ak arte dago zabalik

### 4.7. Ikasleei ostatu emateko programak

#### 4.7.1. Ostaturako laguntzak ikasle atzerritarrentzat

Bilboko Udalarekin sinatutako lankidetzak hitzarmenaren bitartez bigarren urtez jarraian deitu dira [UPV/EHUrekin hitzarmena duten unibertsitateetatik etorritako ikasle atzerritarrentzako laguntzak](#), Bilbon ostatu hartzeko laguntzak emateko. Laguntza horietarako 10.000 € jartzen ditu Bilboko Berdintasun, Lankidetzak eta Herritarren gaietarako atalak UPV/EHUtik egindako deialdi publiko baten bitartez.

Lankidetzak honi esker **4 ikasle**, 2 neska eta 2 mutilek, jaso dute laguntza horien zati bat, hiru zatitan banatuta: 2016ko urtarrilean, apirilean eta uztailean.

#### 4.7.2. Ostatuarekin lotutako beste ekimen batzuk

Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaritzaren webgunearen bitartez ostatuarekin lotutako beste ekimen batzuei buruzko informazioa ematen da:

- [Gazte solidarioentzako Bilboko Udal Etxebizitzak Programa](#). Bilboko Udal Etxebizitzak erakundeak eta Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzak ekimen bat jarri zuten abian etxebizitza merkeak eskaintzeko UPV/EHUko graduondoko (Masterreko edo Doktoregoko) ikasleei. Horren truke, gazteek Otxarkoagako eta Bilbo Zaharreko, eta horietako komunitateen, bizimodua hobetzen laguntzen eta parte hartzen dute.
- Programaren zazpigarren deialdian 45 plaza eskaini dira Otxarkoagan eta Bilbo Zaharrean pisua partekatzeko, hilean 55 € gehi argiaren eta uraren gastua ordainduta.
- [UPV/EHUko ikasleei eta bakarrik bizi diren adineko pertsona](#) autonomoei zuzendutako programa. Programa honetan, adineko pertsonak ostatu eskaintzen dio ikasleari bere etxean ikasturte osorako. Horren ordainetan, ikasleak konpainia emango dio, baita eguneroko lan arinetan lagundu ere. Programa hau Arabako Gizarte Ongizateko Foru Institututik eskaintzen da.

### 4.8. Gizartearekin partekatzen

Gizartearekin ezagutza transferitzeari eta trukatzeari dagokionez, beharrezko jo da pertsonak gaitzera ez mugatzea. Helburua da pertsona kontzienteak eta ahalmen kritikoa dutenak prestatzea, gizartea eraldatzeko.

Illo horretatik, Roberto Bermejo irakaslearen "[Handbook for a Sustainable Economy](#)" liburuaren aurkezpenean eta zabalkundearen lagundu dugu. Liburu horrek bestelako ikuspegia dakar ingurumen arazoari aurre egiteko. Hogei kapituluek islatzen dute nagusi den paradigmen izaera eta naturaren antzera antolatu beharra, espezie gisa gure etorkizuna bermatzeko; azken batean, kooperatzen ikastea da.

Jarduerak Eusko Jaurlaritzaren finantziarioari esker egin dira, eta programa kontratuaren bidez ordaindu dira. Horri esker iraunkortasunari heldu ahal izan diogu kudeaketaren, irakaskuntzaren, ikerketaren, prestakuntzaren eta gure unibertsitateko kideen sentsibilizazioaren ikuspegitik, aldi berean gizartearekin loturak sendotuz.

Ezin dugu memoria hau amaitu gure unibertsitateko kide guztiei eta kanpoko eragileei eskerrak eman gabe; izan ere, haiei esker jarri ahal izan dira martxan aurkeztutako ekintzak, eta haiei esker lan egiten da egunegun, bizitzaren iraunkortasunarekin konpromiso handiagoa duen unibertsitatea eraikitzeko.

Pertsona horiei guztiei: Eskerrik asko! ¡Gracias!



eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea